

ARABAKO BIDEAK SA (kide bakarreko sozietatea)

**2025EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO URTEKO EKITALDIARI BURUZKO
MEMORIA**

(1) Sozietatearen izaera eta jarduerak

Arabako Bideak SA (kide bakarreko sozietatea) (aurrerantzean, “sozietatea”) sozietate anonimo eratu zen 2003ko abenduaren 15ean, denboraldi mugagaberako.

Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 1044/2003 Erabakiari jarraikiz sortutako sozietate publikoa da. Sozietatearen kapitala oso-osorik Foru Aldundiarena da eta, beraz, kide bakarreko sozietatea da.

Sozietatearen egoitzaren helbidea honako hau da: Probintzia plaza z.g., Vitoria-Gasteiz.

Arabako Bideak SA sozietatearen xede nagusia da Vitoria-Gasteiz-Eibar AP-1 autobidea eraiki, kontserbatu, mantendu eta ustiatzea, bere kabuz edo hirugarren pertsonen bitartez, Arabako Lurralde Historikoa zeharkatzen duen zatian.

Sozietatearen helburu soziala izango da, halaber, Arabako Foru Aldundiak agintzen dizkion beste autobide, edukiera handiko bide eta gainerako bide azpiegitura batzuk proiektatzea, eraikitzea, kontserbatzea, finantzatzea eta ustiatzea, bai eta haiekin zerikusia duten instalazioak eta zerbitzuak ere, eta, hala badagokio, baita tarte berriak, hobekuntzak, handitzeak eta luzapenak ere.

Hauek ere badira sozietatearen helburu sozialak, aurreko paragrafoan adierazitako jardueraz gainera:

- a) Aurrekoetz bestelakoak izanik, haietan eragina duten azpiegitura obrak, baldin eta haien eragin eremuaren barruan egiten badira edo trafikoa antolatze beharrezkoak badira, eta Arabako Foru Aldundiak sozietatea behartzen badu obren gauzatze proiektua egitera edo soilik obrak gauzatzera.
- b) Emakidan dituen autobide, errepide, tunel eta zubietako zerbitzu eremuak ustiatzeko ekintzak eta horien osagarriak direnak.
- c) Honako ekintza hauek: zerbitzuguneak, garraio zentro integratuak eta aparkalekuak, baldin eta horiek guztiak azpiegitura haien eragin eremuaren barruan badaude. Eremu hori zein den aplikatu beharreko legeko xedapenek zehazten dute.
- d) Garraio eta komunikazio azpiegiturekin loturik dauden jarduerak, aplikatu daitezkeen xedapenen arabera.

Azaldutako jarduerak sozietateak, osorik nahiz zati batean, zeharka egin ahal izango ditu, helburu berdina edo antzekoa daukaten beste sozietate batzuetako partaidetza dela medio.

2003ko maiatzaren 8an, lankidetzak hitzarmena sinatu zuten Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; horren bidez, besteak beste, AP-1 autobidea 2007. urterako amaituta egon zedin beharrezko baliabideak jartzea adostu zuten eta autobide horri aplikatu dakizkiokeen tarifak edo bidesariak finkatu zituzten.

2004ko urriaren 26an, Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Bideak SAK kudeaketa akordio bat sinatu zuten; akordio horren bidez, Arabako Bideak SAKi esleitu zitzaizkion autobidea eraikitze, kontserbatzeko, mantentzeko, ustiatzeko eta finantzatzeko jarduerak, zuzeneko kudeaketako araubidean. Akordio horrek, besteak beste, Arabako Bideak SAK autobideari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak eta Arabako Foru Aldundiaren eskumenak, eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu.

Autobidearen finantzaketari dagokionez, Arabako Batzar Nagusiek otsailaren 9ko 5/2004 Foru Araua onetsi zuten, zeinaren bidez Arabako Bideak SAKi autobidea eraikitze behar ziren finantziaketa kontratuak sinatzeko baimena ematen baitzitzaion. Finantziaketako ezinbesteko baldintza da Arabako Foru Aldundiaren zorpetze gisa ez zenbatzea, Europako nazioko eta eskualdeko kontuen sistemaren (SEC 95) ondorioetarako eta Aurrekontu Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorraren ondorioetarako.

Era berean, 2003ko otsailaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek akordioa sinatu zuten, Inbertsio Publikoaren aldeko Finantza Laguntzarako Esparru Plana garatu eta aplikatzeko. Akordio hori 2004ko urriaren 15ean aldatu zen, hasierako akordioan proiektuutarako hasieran aurreikusitako zuzkidura ekonomikoak eta urte anitzeko banaketak aztertze.

Berrikuspen horretan, Eusko Jaurlaritzak autobidea eraikitze eman beharreko diru kopuru hauek jaso ziren:

2003	2004	2005	2006	2004
6.010.000	12.020.000	11.510.000	6.010.000	35.550.000

Inbertsio beharren arabera, finantza erakundeekin epe luzerako kredituak harpidetu dira. Kreditu horiek, funtsean, honako hauen bidez antolatzen dira: a) epe luzerako tartekako kreditu kontratu bat, eta b) eraikuntzako kreditu kontratu bat, bonuen bidez mugigarria. Gainera, BEZ kreditu kontratu bat sinatu zen, autobidea egitean jasandako balio erantsiaren zerga finantzatzeko.

Cash-flow librearen % 100 banku zorra kitatzeko erabiltzen duen proiektuak finantzatzeko ereduari oinarritzen da finantzaketa. Baina, 2008ko apirilean mendeko mailegu bat sinatu ondoren, ez da libre dagoen diruzaintza osoa banku zorra kitatzeko erabiltzen; izan ere, kontuan izan behar da zorraren zerbitzuko estaldura ratioa.

AP-1 autobidea eraikitze proiektua, Arabako lurraldean, hiru zatitan banatu zen:

1. bide zatia: Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea egiteko proiektua. Tarte: Luko-Gipuzkoako lurralde muga.

Proiektu horren eraikuntza 2004ko apirilaren 27an esleitu zen, 75.637.555 euroan.

Obra horren zuinketa akta 2004ko maiatzaren 10ean egin zen eta, horrekin batera, autobidearen Arabako zatia egiteko lanei ekin zitzaion.

2. bide zatia: Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea egiteko proiektua. Tarte: Etxabarri Dibiña-Luko.

Zati hori egiteko lehiaketa 30.540.972 euroan esleitu zen, 2005eko abenduaren 30ean.

Obra horren zuinketa akta 2006ko apirilaren 19an egin zen.

Arlabango tunela: Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea egiteko proiektua. Arlaban-Eskoriatza iparraldea zatia.

Arlabango tunela Arabako eta Gipuzkoako lurretatik doa. Arabako eta Gipuzkoako foru aldundiek adostu zuten tunelaren Arabako zatia Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo zuela, BIDEGI Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA foru sozietate publikoaren bitartez.

Horrela, erabaki zen sozietateak Arabako lurraldean egin beharreko obraren kostua eta instalazio erkideen kostuaren proportziozko zatia ordainduko zituela; horiek non kokatzen ziren kontuan hartu gabe. Halaber, bere lurraldean tunelaren eraikuntzarekin loturik zeuden lurrak ipini beharko zituen.

Autobidea egitean izandako atzerapen eta kostu osagarrien ondorioz, mendeko bi mailegu osagarri eskatu ziren 2008ko eta 2010eko ekitaldietan. Horien zenbatekoa 12.000.000 eta 9.636.000 euro izan zen, hurrenez hurren.

Sozietatea 2009ko maiatzaren 22an hasi zen AP-1 autobidea ustiatzen.

Sozietatea sozietate estatutuen eta indarreko kapital sozietateen legearen bidez zuzentzen da.

Merkataritza Kodearen 42. artikulua edukiaren arabera, 2025ko eta 2024ko abenduaren 31n, sozietatea ez dago behartuta urteko kontu bateratuak formulatzera.

Urteko kontu hauek eurotan aurkezten dira, hori baita sozietatearen moneta funtzionala eta aurkezpen moneta.

(2) **Urteko kontuak aurkezteko oinarriak**

2.1 Sozietateari aplikatu beharreko finantza informazioaren arau esparrua-

Sozietateari aplikatu beharreko finantza informazioaren arau esparrua honako hauetan ezarritakoa da:

- a) Merkataritza Kodea, Kapital Sozietatei buruzko Legea eta merkataritzako gainerako legeria.
- b) 1514/2007 Errege Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra eta, bereziki, 2010eko abenduaren 23ko Ministro Aginduan argitaratutako Kontabilitate Plan Orokorren Egokitzapen Sektoriala; agindu horren bidez, azpiegitura publikoen emakida duten enpresentzako Kontabilitate Plan Orokorra egokitzeko arauak onartu ziren.
- c) Kontabilitate Plan Orokorren eta haren arau osagarrien garapenean Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuak onetsitako arauak, derrigor bete beharrekoak.
- d) Kontabilitatearen arloan aplikatzekoak diren Espainiako gainerako arauak.

2.2 Irudi fidela-

2025ko ekitaldiko urteko kontuak sozietatearen kontabilitate erregistroak oinarri hartuta prestatu dira, eta aplikatzekoa den finantza informazioaren arau esparruaren arabera aurkeztu dira, eta, bereziki, han jasotako kontabilitate printzipio eta irizpideen arabera;

hala, sozietatearen ondarearen eta finantza egoeraren irudi fidela erakusten dute, baita ekitaldian zehar egindako eragiketen emaitzena ere.

Urteko kontu horiek, zeinak sozietatearen administratzaileek egin baitituzte, Akziodunen Batzar Nagusiak onesteko zain daude. Hala ere, sozietatearen administratzaileek ez dute espero berrespen prozesuan aldaketa esanguratsurik gertatzerik. Bestalde, 2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuak 2025eko apirilaren 29ko ohiko bilkuran onetsi zituen sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiak.

2.3 Kontabilitate printzipioak-

2025ko ekitaldiko urteko kontuak egiteko, finantza informazioari buruz aplikatzekoa den arau esparruari jarraitu zaio, eta, bereziki, 4. oharrean deskribatutako erregistro eta balioespen araei. Sozietatearen administratzaileek derrigor aplikatu beharreko kontabilitate printzipio eta arau guztiak kontuan hartuta egin dituzte urteko kontu horiek, zeinek eragin nabarmena baitute urteko kontu horietan. Ez dago urteko kontu horiek egiteko nahitaezkoa izanik aplikatzen ez den kontabilitate printzipiorik. Era berean, ez dira aplikatu nahitaezkoak ez diren kontabilitate printzipioak.

2.4 Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena- estimación de la incertidumbre-

a) Kontabilitateko zenbatespen aipagarriak eta hipotesiak

2025ko ekitaldiko urteko kontuak prestatzeko, sozietatearen administratzaileen iritzia eta zenbatespenak erabili dira, haietan erregistratuta dauden zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso zenbatesteko. Zenbatespen horiek esperientzia historikoa eta gaur egungo egoeran arrazoizkotzat jotzen diren beste faktore batzuk dituzte oinarri. Aipatutako zenbatespen horiek aztertutako gertaerei buruz 2025ko ekitaldiaren itxieran eskuragarri zegoen informazio onenaren arabera egin diren arren, litekeena da etorkizunean izan daitezkeen gertaerek hurrengo ekitaldietan horiek aldatzera behartzea, eta, hori gertatuko balitz, gerora begira egingo litzateke.

Etorkizunari buruzko funtsezko suposizioak eta ekitaldiaren itxiera datako ziurgabetasunaren zenbatespenari buruzko beste datu garrantzitsu batzuk, hurrengo ekitaldian aktiboen eta pasiboen balioan aldaketa nabarmenak ekar ditzakeen arrisku garrantzitsu bat dutenak, honako hauek dira:

- Aktibo ukiezinen narriaduragatik izan daitezkeen galeren ebaluazioa (5. oharra).
- Horniduren kalkulua (14. oharra). Kalkulu horiek eskuragarri dagoen informazio berriaren arabera alda daitezke.
- Sozietateak zenbatetsitako bizitza baliagarriko urteen arabera amortizatzen du ibilgetua, eta, beraz, haren funtzionamenduagatik, erabileraagatik eta luperketagatik normalean jasaten duten balio galera zenbatetsi behar du, eragin liezaiekeen zaharkitze tekniko edo komertziala ere aintzat hartzea alhora utzi gabe. Ibilgetuen balio bizitzaren zenbatespena balioespen askoren mende dago. Zenbatespen horiek informazio berriaren arabera alda daitezke.
- Finantza gastuen kapitalizazioa (5. oharra).

b) Kontabilitate zenbatespenetako aldaketak

2025ko ekitaldian ez da izan gaur egungo ekitaldian eragina duen edo etorkizuneko ekitaldiei eragitea espero den aldaketa esanguratsurik kontabilitateko zenbatespenetan.

2.5 Informazioaren alderaketa-

2025ko ekitaldiko kopuruez gainera, aurreko ekitaldikoak ere aurkezten dira urteko kontuetan, balantzearen partida bakoitzarekin, galera-irabazien kontuarekin, ondare garbian izan diren aldaketen egoerarekin eta eskudiru fluxuen egoerarekin erkatu ahal izateko. Era berean, memoria honetan 2025ko ekitaldiari buruz ageri den informazioa 2024ko ekitaldiko informazioarekin aurkezten da, alderaketak egin ahal izateko.

2.7 apartatuan aipatutako akatsen zuzenketak egin dira, eta 2024ko ekitaldiko zifra alderatuak egokitu dira.

2.6 Aldaketak kontabilitate irizpideetan-

2025ko ekitaldian ez da aldaketa nabarmenik izan kontabilitate irizpideetan, aurreko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderatuta.

2.7 Hutsen zuzenketa-

Erantsitako urteko kontuak egitean, administrazio kontzesioen finantza aktibazioarekin erlacionatutako akats nabarmen bat hauteman da. Aurreko ekitaldiko zenbatekoak erregularizatu direnez, aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak 1.394.871 euro murriztu dira, eta 2024ko ekitaldiko emaitzak 1.910.052 euro murriztu dira. Hori dela eta, berriz adierazi behar izan dira aurreko ekitaldiko urteko kontuetan sartutako zenbatekoak.

2.8 Garrantzi erlatiboa-

Memoria honetan finantza egoeren edo beste gai batzuen gaineko partidei buruz banakatu beharreko informazioa zehaztean, sozietateak 2025ko ekitaldiko urteko kontuei lotutako garrantzi erlatiboa hartu du kontuan, Kontabilitateko Plan Orokorraren kontzeptu esparruaren arabera.

2.9 Funtzionamenduan dagoen enpresa printzipioa-

2025ko ekitaldian, sozietateak 2.951.085 euroko emaitza positiboak izan ditu (1.669.771 euro 2024an). Horrez gain, 2025eko abenduaren 31n maniobra funtsak 10.578.073 euroko zenbateko negatiboa zuen (9.467.025 euro 2024an).

Sozietatearen administratzaileek, urteko kontu hauek egiteko, funtzionamenduan dagoen enpresa printzipioari jarraitu diote, oinarri hartuz akziodun bakarrarengandik jasotako finantza laguntza (11. oharra), jardueraren hobekuntza etengabea eta 13. oharrean azaldutako zorra birfinantzatzeko akordioak.

(3) Emaitzen aplikazioa

Honako hauek dira administratzaileek 2025ko eta 2024ko ekitaldietako emaitza banatzeko egindako proposamenak, eurotan:

	2025	2024
BANAKETA OINARRIA		
▪ Ekitaldian izandako etekina (galera)	2.951.085	3.579.823
BANAKETA		
▪ Legezko erreserba	295.109	357.982
▪ Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	2.655.976	3.221.841

Sozietatearen administratzaileek 2025ko emaitzak banatzeko egin duten proposamena Akziodunen Batzar Nagusiak onetsi behar du. Bestalde, 2024ko ekitaldiko emaitzak banatzeko proposamena Akziodunen Batzar Nagusiak onetsi zuen, 2025eko apirilaren 29ko bileran.

(4) **Erregistratzeko eta baloratzeko arauak**

Jarraian, 2025ko ekitaldiko urteko kontuak prestatzean aplikatu diren erregistro eta balorazio arau esanguratsuenak laburbildu dira:

a) Ibilgetu ukiezina-

Oro har, ibilgetu ukiezina eskuratze prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioesten da hasieran. Gero, dagokion amortizazio metatuarekin murriztutako kostu balioaren arabera baloratzen da, bizitza baliagarriaren arabera kalkulaturik eta, hala badagokio, narriaduragatik kontabilizatutako balio zuzenketa zenbateko metatuaren arabera.

Ibilgetu ukiezinak bizitza baliagarri definituko aktiboak dira, eta, beraz, sistematikoki amortizatu behar dira, aktiboari datxekion onura ekonomikoek enpresari etekinak ekarriko dizkiotela pentsatzeko arrazoiak dauden denboraldian.

Arestian adierazitakoaren arabera, ibilgetu ukiezinaren amortizazioa zenbateko amortizagarria bizitza baliagarrian sistematikoki banatuz egiten da. Ondorio horietarako, zenbateko amortizagarritzat hartuko da eskuratze kostua ken hondar balioa eginda lortzen den emaitza, aplikatzekoa bada.

Aktibo horien bizitza baliagarria ezin denean modu fidagarrian balioetsi, hamar urteko epean amortizatuko dira, ibilgetu ukiezinari buruzko arau partikularretan ezarritako epeei kalterik egin gabe.

Sozietateak, ekitaldi bakoitza ixtean, hondar balioa berrikusten du, bai eta bizitza erabilgarria eta ibilgetu ukiezinaren amortizazio metodoa ere. Hasieran ezarritako irizpideen balizko aldaketak zenbatespen aldaketa gisa jotzen dira.

Aktibo horien narriaduragatik galerak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduragatik galeren berreskurapenak aitortzeko irizpideak 4.c oharrean zehazten dira.

Informatika aplikazioak

Hirugarrenei eskuratutako informatika aplikazioetarako lizentziak kapitalizatzeko oinarria haiek eskuratzeko izandako kostuak dira.

Programa informatikoak garatzeko izandako gastuak berariaz banakatzen dituzte proiektuek eta haien kostua argi ezarrita dago denboran banatu ahal izateko. Era berean, sozietatearen zuzendaritzak arrazoi sendoak ditu arrakasta teknikoak eta errentagarritasun ekonomiko eta komertziala izango dutela uste izateko.

Aplikazio informatikoak linealki amortizatzen dira balio bizitzan zehar, urtean % 25.

Informatika garapen baten arrakasta teknikoari nahiz ekonomia eta merkataritza errentagarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak dauden unean, hari dagokion aktiboan erregistratutako zenbatekoak zuzenean egotzen zaizkie ekitaldiko galerei.

Ekitaldian izandako informatika aplikazioen mantentze gastuak galera-irabazien kontuan erregistratzen dira.

Emakida erabakia, aktibo arautua

Sozietateak kontratu eta lege ezaugarrien arabera aztertzen du emakida akordioak Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen enpresa emakidadunei egokitzeko arauak onartzen dituen abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduaren irismenean dauden.

Autobideak, tunelak, zubiak eta bestelako bidesari bideak eraikitzeke inbertsioa honako kontzeptu hauek gehitzeak osatzen du: azterlan teknikoak eta ekonomikoak, proiektuak, desjabetzeak, kalte ordainak eta zerbitzuen berrezarpenak eta zortasunak, obren eta instalazioen eraikuntza, obren zuzendaritza eta administrazio gastuak, autobidea eraikitzeke aldiaren sortutako finantza gastuak eta bidesari bideak funtzionatzen hasi arte sortutako gastu orokorren eta administrazio gastuen zatia.

Erabiltzeke moduan egoteko urtebete baino gehiagoko epea behar duten emakida akordio bidezko obren erosketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren barruan, funtzionatzen hasi aurretik sortutako finantza gastuak jaso dira, gastu horiek zuzenean egotzi ahal bazaizkie erosketari edo eraikitzeke, sartzen diren ibilgetuaren arrazoizko balioa muga dutela.

Zabaltzeke, modernizatzeko edo hobetzeko gastuek ekoizpena, gaitasuna edo eraginkortasuna handitu egiten dute edo ondasunen bizitza erabilgarria luzatzen dute; gastu horiek dagokien ondasunen gastu handiago bezala kontabilizatzen dira, ordezkatu direlako baja emandako elementuen kontabilitateke balioa ezarri ahal bada.

Konponketa garrantzitsuen gastuak aktibatu eta amortizatu egiten dira zenbatetsitako bizitza erabilgarriko aldiaren; kontserbazio eta mantentze gastuak, aldiz, gastuak egiten diren ekitaldiko galera-irabazien kontuan kargatzen dira.

Uneko ibilgetuak eraikuntza fasean dauden aktiboak erregistratzen ditu, eta, beraz, ez daude martxan ekitaldia ixtean.

Autobideetan, tuneletan eta ordainpeko beste bide batzuetan egindako inbertsioen osagai diren elementuak, beren bizitza erabilgarria emakidaren 35 urteko aldia baino gehiagokoa bada, emakida aldi horretarako aurreikusitako trafikoaren arabera amortizatzen dira.

Bizitza erabilgarri finituak dituzten gainerako ibilgetu ukiezinak amortizatzeko, zenbateko amortizagarria modu sistematikoan banatzen da balio bizitzan zehar, honako irizpide hauek aplikatuz:

Kontzeptua	Amortizazio metodoa	Zenbatetsita ko bizitza baliagarriaren urteak
Autobide, tunel, zubi eta ordainpeko beste bide batzuetarako inbertsioak	Lineala	14-25

Sozietateak kontratuz bere gain hartutako betebeharrak, hots, ustiapen aldian azpiegitura mantendu beharra edota emakida akordioaren indarraldia amaitutakoan lagatzailerari itzuli aurretik azpiegitura lehengoratu beharra, diru sarreren iturri ez diren heinean, h) apartatuko horniduren kontabilitate politikari jarraituz aitortzen dira.

Ildo horretan, mantentze obrak gastu gisa aitortzen dira, egiten diren heinean. Birjarpen jarduketek, konponketa handiek eta azpiegitura leheneratzeko beharrezkoak diren jarduketek berekin dakarte hornidura bat sistematikoki aitortzea. Hala ere, betebeharra eraisteko betebeharrarekin pareka daitekeen neurrian, halakotzat hartzen da.

Hobekuntzarako edo edukiera handitzeko jarduketak emakida berriztat hartu behar dira. Hala ere, akordioaren baldintzak ikusita, sozietateak uste badu jarduketa horiek ez direla konpentsatzen gauzatzen diren egunetik diru sarrera handiagoak lortzeko aukerarekin, eraitsi edo erretiratze hornidura bat aitortzen da, gauzatzen diren egunetik diru sarrera handiagoak lortzeko aukerarekin konpentsatzen ez diren jarduketei lotutako betebeharra ezerezteko behar den ordainketaren egungo balioa hobeto kalkulatzegatik. Kontrapartida ibilgetu ukiezinaren eskuratze prezio handiagoa da. Jarduketak egiten direnean, hornidura bertan behera uzten da eta dagokion sarrera aitortzen da, betiere sozietateak eraikuntza zerbitzua ematen badu. Etorkizunean diru sarrera handiagoak sortuz berreskuratzea aurreikusten den ahalmenaren hobekuntzaren edo handitzearen zati proportzionalak eraikuntza jarduketetarako deskribatutako kontabilitate tratamendu orokorrari jarraitzen dio.

Emakida akordioa, finantza aktibazioa

Eraikuntza edo hobekuntza zerbitzuengatik ordainsariak ibilgetu ukiezin bat kontabilizatzea badakar, eraikuntza edo hobekuntza aldian sortutako gastu finantzarioak ibilgetu ukiezinaren kapitalizatu behar dira, eraikuntza aldia edozein dela ere. Eraikuntza edo hobekuntza zerbitzuetan aurrerapen maila aplikatzeko, finantza gastuak eraikuntza kostuaren parte dira. Finantza gastuak "Finantza marjinaren parte diren finantza gastuak aktiboan jasotzea" partidaren bidez kapitalizatzen dira.

Eraikuntza edo hobekuntza zerbitzuen ordainak berekin badakar ibilgetu ukiezin bat aitortzea, azpiegitura ustiatzeko moduan dagoen unetik aurrera, sozietateak kapitalizatu egiten du sortutako finantza gastuak, baldin eta:

- Bereizita identifikatu eta fidagarritasunez neurtu badaitezke.
- Arrazoizko ebidentzia badago eta litekeena bada etorkizuneko diru sarrerek aktibatutako zenbatekoa berreskuratze aukera ematea.

Ildo horretan, sozietateak etorkizuneko ekitaldietako tarifetan aipatutako gastuak berreskuratuko direla uste izateko zentzuzko arrazoiak ditu, baldin eta, Ekonomia eta Finantza Planean jasota egoteaz gainera, hurrengo bi baldintzak betetzen badira:

- a) Gastu hauek tarifaren zehaztapenaren ondorioetarako onartutako kostu gisa sartuz aukera izatea, gutxienez ere, aktibatutako finantza gastuak adinako diru sarrerak lortzeko etorkizunean.
- b) Etorkizuneko diru sarrerek aurretik egindako kostuak berreskuratzeko aukera emango dutela adierazten duen ebidentzia izatea.

Ibilgetu ukiezinean sartu beharreko finantza gastuen zenbatekoa zehazteari dagokionez, Ekonomia eta Finantza Planeko magnitudeetatik abiatuta, honako zenbateko hauek zehazten dira:

- Emakidaren iraunaldirako aurreikusten diren diru sarrerak, guztira, eta ekitaldi bakoitzari dagozkionak.
- Emakidaren iraunaldirako aurreikusten diren finantza gastuak, guztira, eta ekitaldi bakoitzari dagozkionak. Aurreikusitako diru sarrerei dagokienez, ekitaldi bakoitzeko ustiapeneko diru sarrerak guztizkoen aldean zer proportzio egiten duten zehazten da. Proportzio hori emakidaren aldiaren zehar aurreikusitako finantza gastuen guztirako zenbatekoari aplikatzen zaio, ekonomia ekitaldi bakoitzari ekitaldiko finantza gastu moduan egotzi beharreko horien zenbatekoa zehazteko. Ekitaldi batean sortutako diru sarreren zenbatekoa aurreikusitakoa baino handiagoa bada, aipatutako proportzioa benetako diru sarreraren eta aurreikusitako diru sarrera osoaren arteko erlazioak zehazten du ekitaldi horretarako, eta horrek, normalean, doikuntza bat eragiten du azken ekitaldiari dagokion egozpenean.

Ekitaldi bakoitzerako, aurreikusitako finantza gastuaren zenbatekoaren eta aurreko lerroaldetik ondorioztatzen denaren arteko kendura positiboa aktiboko partida batean islatzen da; partida horren zenbatekoa ekitaldiko finantza gastu gisa egozten zaie emaitzei, aipatutako kendura negatiboa den ekitalditik aurrera, eta ateratzen den zenbatekoarekin.

Ekitaldi batean izandako gastu finantzarioen zenbatekoa ez badator bat Ekonomia eta Finantza Planean aurreikusitakoarekin, diferentzia ekitaldiko emaitzari egotzi beharreko gastu finantzarioaren zenbateko handiago edo txikiago gisa tratatzen da.

Diru sarreren aurreikuspenak aldatzen badira, aldaketaren ondorioak aurreko ekitaldietan emaitzei egotzitako finantza gastuen zenbatekoak doitu gabe tratatzen dira, eta aurreko paragrafoetan kontzesioa amaitu arte geratzen den aldirako ezarritakoa aplikatuta, kontuan hartuta emaitzei egozteko dagoen zenbateko aktibatua kontzesio aldiko gainerako aldiaren sortuko diren aurreikusitako finantza gastuen guztizkoaren parte izan behar dela.

Finantza gastu aktibatuak "Ibilgetu ukiezina" epigrafeko "Emakida akordioak, finantza aktibazioa" partidan aitortzen dira.

b) *Ibilgetu materiala-*

Ibilgetu materialean jasotako ondasunak eskuratze prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera baloratzen dira hasieran, eta, gero, dagokien amortizazio metatuaren eta narriaduragatik izan ditzaketen galeren kostu garbiaren balioaren arabera.

Enpresak bere ibilgetu materialerako egindako lanen zenbatekoa kalkulatzeko, gai kontsumigarrien erosketaren prezioari ondasun horiei egotz dakizkiekeen zuzeneko edo zeharkako kostuak gehitzen zaizkio.

Erabiltzeko moduan egoteko urtebete baino gehiago behar duten ibilgetuko elementuak erosteari edo eraikitzeari zuzenean egotz dakizkiokeen finantza gastuak elementu horien kostuan jasotzen dira funtzionamendu baldintzetan egon arte. 2025eko eta 2024ko ekitaldietan ez da zenbatekorik kapitalizatu kontzeptu horrengatik.

Ibilgetu materialeko ondasunak berritzeko, handitzeko edo hobetzeko kostuak aktiboari gehituko zaizkio, ondasunaren balio handiago gisa, haren ahalmena edo produktibitatea handitzea edo bizitza erabilgarria luzatzea dakarrenean eta, ondorioz, ordezkaturako edo berritutako elementuak kontabilitatetik erretiratzeko dira.

Sortzapen printzipioa betez, mantentzeko, artatzeko eta konpontzeko aldi behingo gastuak, egiten diren ekitaldiko kostu moduan egozten zaizkie emaitzei, betiere gastuak aktiboen erabilera hobetzen ez badute eta haien bizitza baliagarria luzatzen ez badute.

Sozietateak bere ibilgetu materiala amortizatzen du metodo linealari jarraiki, eskuratze kostua kalkulaturako bizitza baliagarriaren urteen artean banatuta, hala badagokio, hondar balioa kenduta, funtzionamenduagatik, erabileragatik eta gozamenagatik izandako balio galeraren arabera. Hauek dira estimaziozko bizitza baliagarriak:

Grupo	Años de vida útil estimada
Otras instalaciones, utillaje y mobiliario	5
Otro inmovilizado material	4

Sozietateak, ekitaldi bakoitza ixtean, hondar balioa berrikusten du, bai eta bizitza erabilgarria eta ibilgetu ukiezinaren amortizazio metodoa ere. Hasieran ezarritako irizpideen aldaketak zenbatespen aldaketa gisa jotzen dira.

Aktibo bat besterendu edo baliogabetzean lortzen den mozkin edo galera kalkulatzeko, aktiboaren salmentaren prezioaren eta kontabilitate balioaren arteko aldea atera behar da; emaitzen kontuan jasotzen da.

Sozietatearen administratzaileen ustez, aktiboen kontabilitate balioak ez du aktiboen balio berreskuragarria gainditzen, eta balio hori 4.c oharrean azaldutakoaren arabera kalkulatu dute.

Aktibo horien narriaduragatik galerak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistraturako narriaduragatik galeren berreskurapenak aitortzeko irizpideak 4.c oharrean zehazten dira.

c) *Ibilgetuaren balio narriadura*
Ukiezina, materiala eta ondasun higiezinak inbertsioak-

Sozietateak ekitaldi bakoitzaren itxieran, gutxienez, ibilgetu ukiezinaren, materialaren eta higiezinaren inbertsioen balio narriaduragatik galeren zantzurik dagoen ebaluatzen du, ikusteko aktibo horien balio berreskuragarria kontabilitateko balioa baino txikiagoa den zenbateko batera murriztu den. Zantzurik badago, aktiboaren balio berreskuragarria zenbatesten da, balio narriadurak eragindako balizko galeraren irismena zehazteko.

Narriaduragatik galera bat kontabilizatzen da aktiboaren kontabilitate balioa zenbateko berreskuragarriaren gainetik (hau da, aktiboaren arrazoizko balioa ken salmenta kostuak edo erabilera balioa, bietan handiena) gainditzeagatik. Balio narriaduragatik galerak

ebaluatzeko, bereizita identifika daitezkeen diru fluxuak dauden mailarik baxuenean taldekatzen dira aktiboak (eskudirua sortzen duten unitateak). Narriaduragatik galera izan duten aktibo ez-finantzarioei, merkataritza fondoa ez direnei, berrikuspenak egiten zaizkie balantzearen data bakoitzean, galera lehengoratu den ikusteko.

Hala eta guztiz ere, aktiboen inguruabar espezifikoek erakusten badute galera itzulezina dela, galera hori galera-irabazien kontuko ibilgetutik eratorritako galeretan kontabilizatzen da zuzenean.

2025ko eta 2024ko ekitaldietan, sozietateak ez du ibilgetu ukiezinen eta materialen narriaduragatik galerarik izan.

d) Errentamenduak-

Ekitaldian izandako errentamendu operatiboen gastuak galera-irabazien kontura kargatzen dira.

e) Finantza tresnak-

Finantza tresna bat kontratu bat da, enpresa batean finantza aktibo bat sortzen duena eta, aldi berean, beste enpresa batean finantza-pasibo bat edo ondare tresna bat sortzen duena.

Finantza tresnak finantza aktibotzat, finantza pasibotzat edo ondare propioko tresnatzat sailkatzen dira hasierako kontabilizazioan, kontratuaren akordioaren funts ekonomikoaren eta finantza aktibo, finantza pasibo edo ondare tresnaren definizioen arabera.

Baloratzeko, finantza tresnak kategoria hauetan sailkatzen dira: galera-irabazien kontuaren bitartez arrazoizko balioan baloratutako finantza aktiboen eta pasiboen kategoriak, hasieran izendatutakoak eta negoziatzeko mantendutakoak eta galera-irabazien kontuan bitartez arrazoizko balioan ezinbestean baloratutakoak bereizita; kostu amortizatuaren bitartez baloratutako finantza aktiboak eta pasiboak; ondare garbian aldaketak eginez arrazoizko balioan baloratutako finantza aktiboak, izendatutako ondare tresnak gainerako finantza aktiboetatik bereizita; eta kostuan baloratutako finantza aktiboak. Sozietateak kostu amortizatuko eta ondare garbian aldaketak dituen arrazoizko balioko finantza-aktiboak sailkatzen ditu, izendatutako ondare tresnak izan ezik, negozio ereduaren eta kontratu fluxuen ezaugarrien arabera. Sozietateak finantza-pasiboak kostu amortizatuan balioetsizat sailkatzen ditu, galera-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioan izendatutakoak eta negoziatzeko mantendutakoak izan ezik.

Finantza tresnak kontabilizatzen dira sozietatea kontratuaren edo negozio juridikoaren alderdi obligaziodun bihurtzen denean, haren xedapenen arabera.

e.1) Finantza aktiboak

Sailkapena eta balorazioa-

Sozietateak dituen finantza aktiboak honako kategoria hauei dagozkie:

1. Kostu amortizatuko finantza aktiboak:

Finantza aktibo bat kategoria horretan jasotzen da, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta kontratua gauzatzearen ondoriozko diru

fluxuak jasotzeko helburua duen negozio eredu baten esparruari eusten badio, eta finantza aktiboen kontratu baldintzek diru fluxuak eragiten badituzte zehaztutako datetan, eta fluxu horiek printzipalaren kobrantzak eta interesak baino ez badira ordaintzeke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gainean.

Kontratuetako diru fluxuak, printzipalaren eta interesaren kobrantzak baino ez badira, ohiko maileguaren edo mailegu arruntaren izaera duen akordio bati datxezkio, hargatik eragotzi gabe eragiketa zero interes tasan edo merkatutik beherako interes tasan adostea.

Finantza aktiboen multzo bat bere kontratu fluxuak lortzeko kudeatzeak ez du esan nahi sozietateak tresna guztiei eutsi behar dienik epemugara arte; finantza aktiboak helburu horrekin kudeatzen direla ulertu ahal izango da, salmentak egin arren edo etorkizunean salmentak izatea espero izan arren. Horretarako, sozietateak kontuan hartzen ditu aurreko ekitaldietako salmenten maiztasuna, zenbatekoa eta egutegia, salmenta horien arrazoiak eta etorkizuneko salmenta jarduerari buruz espero dena. Sozietateak inbertsio horiek kudeatzen ditu, eta kudeaketa hori ez da banakako tresna baterako dituen asmoen arabera.

Oro har, kategoria honetan jasotzen dira merkataritza eragiketengatiko kredituak (sozietatearen trafiko eragiketengatik ondasunak saltzean eta zerbitzuak ematean sortzen diren finantza-aktiboak, kobrantza geroratuarekin), eta merkataritzakoak ez diren eragiketengatiko kredituak (ondare tresnak eta eratorriak ez diren, merkataritza jatorrikoak ez diren, kobrantzek zenbateko zehatza edo zehaztu daitekeen zenbatekoa duten eta sozietateak emandako mailegu edo kreditu eragiketetatik datozen finantza aktiboak).

Sozietatearen ustez, merkataritzako zordunak eta hirugarrenei lagako zaizkien eta baja emango ez zaizen kobratu beharreko kontuak negozio eredu honetan mantentzen dira.

Kategoria honetan sailkatutako finantza-aktiboak arrazoizko balioan balioesten dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuak gehituta. Ondoren, finantza-aktibo horiek kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira. Sortutako interesak galera-irabazien kontuan kontabilizatzen dira interes tasa efektiboaren metodoa aplikatuz.

Hala eta guztiz ere, balio nominalean baloratzen dira honako hauek, eskudiru fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez bada: urtebetetik gorako epemuga ez duten eta kontratuzko interes tasa espliziturik ez daukaten merkataritza eragiketengatiko kredituak nahiz langileentzako kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare tresnen gainean eskatutako ordainketak, haien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero bada.

Finantza aktibo baten kontratuzko diru fluxuak jaulkitzailearen finantza zailtasunen ondorioz aldatzen direnean, sozietateak balio narriaduragatiko galera kontabilizatu behar den ala ez aztertzen du.

Ekitaldi itxieran behintzat, egin beharreko balio zuzenketak egiten dira, objektiboki ikusten bada finantza-aktibo baten balioa, edo antzeko arrisku ezaugarriak dituzten finantza-aktiboen multzo batena, narriatu egin dela hasierako kontabilizazioaren ostean gertatutako gertaera baten edo gehiagoren ondorioz, eta horrek etorkizuneko diru fluxu zenbatetsiak murriztea edo atzeratzea eragiten badu, beharbada zordunaren kaudimengabeziagatik. Kasu horretan, finantza-aktibo hauen balio narriaduragatiko galera da kontabilitate balioaren eta etorkizuneko diru fluxuen balio eguneratuaren arteko diferentzia, azken horiek hasierako kontabilizazioan kalkulaturako interes tasa efektiboaren arabera deskontatuta; fluxu horien

artean egongo dira, hala badagokio, sortzen diren berme erreal eta pertsonaletatik eratorritakoak.

Narriaduragatik kontabilizatutako balio zuzenketak, baita ondorengo gertaera baten ondorioz galeraren zenbatekoa murrizten denean egin beharreko itzulketak ere, gastu edo sarrera gisa kontabilizatzen dira galera-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga balio narriaduragatiko galera erregistratu izan ez balitz aktiboek izango luketen kontabilitateko balioa da.

Kreditu narriadura duten finantza-aktiboen interesen kontabilizazioak arau orokorrak betetzen ditu, baina sozietateak zenbateko hori berreskuratuko den edo ez ebaluatuko du aldi berean, eta, hala badagokio, narriaduragatiko galera kontabilizatuko du.

Sozietateak zuzenean murrizten du finantza-aktibo baten kontabilitateko zenbatekoa, guztiz edo partzialki berreskuratzeko arrazoizko itxaropenik ez duenean.

Bereziki, merkataritzako zordunen narriaduraren ebidentzia objektiboa dagoela zehazten du sozietateak, banakako azterketa baten bidez eta bezero bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta. Hala ere, sozietateak ez du kontabilizatzen narriaduragatiko balio zuzenketarik administrazio publikoekin, finantza erakundeekin eta berme eraginkorrekin bermatutako saldoetan.

Sozietatearen ustez, bezero bati kobratu beharreko kontu bat ordaindu gabe dago mugaeguna iristean kontuan hartu ez bada, administrazio izaerako edo salbuespenezko atzerapenak direnean izan ezik.

Sozietateak erabat edo partzialki berreskuratzeko arrazoizko itxaropenik ez duenean, kobrazintzat jotzen dira mugaeguneratutako eta ordaindu gabeko merkataritzako zordunekiko saldoak, eta baja ematen zaie, sozietateak kobrantza kudeaketa aktiboa egiten jarraitzen duen ala ez kontuan hartu gabe, dela legezko bidetik, dela negoziatutako bidetik. Baja emandako zenbatekoak geroago berreskuratzea ezohiko sarrera gisa kontabilizatzen da.

2. *Kostuko finantza aktiboak:*

Nolanahi ere, balorazio kategoria honetan jasotzen dira:

- a) Taldeko enpresen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak, Kontabilitate Plan Orokorraren urteko kontuak prestatzeko 13. arauan zehazten diren moduan.
- b) Ondare tresnetan egiten diren gainerako inbertsioak, zeinen arrazoizko balioa ezin baita zehaztu merkatu aktibo batean tresna berdin-berdinarentzat kotizatutako prezio bati erreferentzia eginez, edo ezin baita fidagarritasunez zenbatetsi, eta inbertsio horien azpian dauden eratorriak.
- c) Arrazoizko balioa fidagarritasunez zenbatetsi ezin zaien finantza-aktibo hibridoak, kostu amortizatuan kontabilizatutako baldintzak betetzen direnean izan ezik.
- d) Partaidetza kontuen eta antzekoen kontratu baten ondorioz egindako ekarpenak.

- e) Izaera kontingentea duten partaidetza maileguak, izan enpresa mailegu hartzailean mugari bat betetzearen baldintzapeko interes tasa finko edo aldakor bat hitzartzen delako (adibidez, mozkinak lortzea), izan haiek kalkulatzeko enpresa horren jardueraren bilakaerari soilik egiten zaiolako erreferentzia.
- f) Hasiera batean arrazoizko balioaren zorroan galera-irabazien kontuan aldaketak eginez sailkatu behar den beste edozein finantza aktibo, haren arrazoizko balioaren zenbatespen fidagarria lortzerik ez dagoenean.

Kategoria honetan jasotzen diren inbertsioak kostuaren arabera baloratzen dira hasieran, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuak; azken horiek ez dira jasotzen taldeko enpresetan egindako inbertsioen kostuan.

Hala ere, taldeko, talde anitzeko edo elkartuko enpresa gisa sailkatu aurreko inbertsioak daudenean, inbertsio horren kostutzat hartzen da enpresak kalifikazio hori izan aurretik izan beharko lukeen kontabilitate balioa.

Era berean, ondare tresnen hasierako balioespenean jasotzen da lehentasunezko harpidetza eskubideen eta antzekoen zenbatekoa, halakorik eskuratu bada.

Hasierako kontabilizazioaren ondoren, kategoria honetan jasotzen diren ondare tresnak kostuari narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta kalkulatzen dira, hala dagokionean.

Aktibo horiei balantzean baja emateagatik edo beste arrazoiren batengatik esleitu behar zaienean balioa, batez besteko kostu haztatuaren metodoa aplikatzen da, talde homogeneoen arabera, eta talde homogeneotzat hartuko dira eskubide berdinak dituzten balioak.

Ekitaldia ixtean behintzat, egin behar diren balioespen zuzenketak egiten dira, baldin eta inbertsio baten kontabilitate balioa berreskuragarria izango ez den ebidentzia objektiboa badago. Balioespen zuzenketaren zenbatekoa kontabilitate balioaren eta zenbateko berreskuragarriaren artean dagoen aldea da. Zenbateko berreskuragarritzat hartu behar dugu arrazoizko balioaren (ken salmenta kostuak) eta inbertsiotik eratorritako etorkizuneko diru fluxuen balio eguneratuaren arteko aldearen arteko zenbatekorik handiena. Ondare tresnen kasuan, fluxu horiek kalkulatzen dira, bai partaidetzapeko enpresak dibidenduak banatzearen ondorioz eta enpresa horretan egindako inbertsioa besterentzearen edo kontuetan baja ematearen ondorioz jasotzea espero direnak zenbatetsiz, bai partaidetzapeko enpresak, dela ohiko jarduerengatik, dela besterentzeagatik edo kontuetan baja emateagatik, sortzea espero diren diru fluxuetan duen partaidetza kalkulatzuz.

Ondare tresnetan egindako inbertsioen zenbateko berreskuragarriaren ebidentzia hoberik ezean, aktibo mota horren narriaduragatiko galeraren zenbatespena partaidetzapeko erakundearen ondare garbiaren eta zerga eraginaren plusbalio tazitu garbien arabera (balorazio datan daudenak) kalkulatzen da. Balio hori kalkulatzeko, baldin eta partaidetzapeko enpresak aldi berean beste batean inbertitzen badu, kontuan hartzen da Merkataritzako Kodean eta hori garatzen duten arauetan ezarritako irizpideei jarraituta urteko kontu bateratuetan jasotako ondare garbia. Partaidetzapeko enpresak egoitza Espainiatik kanpo duenean, itxierako kanbio tasa aplikatzen zaie ondare garbiari eta data horretan dauden isilbidezko gainbalioei.

Balio narriaduragatik egindako balio zuzenketak kontabilizatzeari eta, hala badagokio, itzultzea gastu edo sarrera gisa erregistratzen da, hurrenez hurren, galera-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga itzulketa datan inbertsioak izango lukeen kontabilitate balioa da, balio narriadura erregistratuta egon ezean.

Finantza aktiboetatik jasotako interesak eta dibidenduak

Eskuraketaren unearen ondoren sortutako finantza aktiboen interesak eta dibidenduak sarrera gisa aitoritzen dira galera-irabazien kontuan. Interesak interes tasa efektiboaren metodoaren bidez kontabilizatzen dira, eta ondare tresnetan egindako inbertsioetatik datozen dibidenduengatik diru sarrerak, berriz, Sozietatearentzat haiek jasotzeko eskubideak sortu direnean kontabilizatzen dira.

Finantza-aktiboen hasierako balorazioan independenteki erregistratzen dira, kontuan hartuta euren mugaeguna, sortutako eta une horretan iraungi gabeko interes esplizituen zenbatekoa eta organo eskudunak eskuraketaren unean erabakitako dibidenduen zenbatekoa. Horren ondorioz, zenbateko horiek ez dira sarrera gisa kontabilizatzen galera-irabazien kontuan.

Banatutako dibidenduak zalantzarik gabe eskuratze data baino lehen sortutako emaitzetatik badatoz, partaidetzako erakundeak eskuratze dataren ondoren sortutako etekinak baino zenbateko handiagoak banatu direlako, ez dira diru sarrera gisa kontabilizatzen, eta inbertsioaren kontabilitate balioa murrizten dute.

Finantza aktiboen baja-

Sozietateak finantza-aktibo bati edo haren zati bati baja ematen dio finantza-aktiboaren diru fluxuen gaineko kontratu eskubideak iraungitzen direnean edo laga direnean eta haren jabetzari datxekion arriskuak eta onurak transferitu direnean, betiere Sozietateak lagapenaren aurretik eta ondoren transferitutako aktiboaren diru fluxu garbien zenbatekoetan eta egutegian izandako aldakuntzarekiko izan duen esposizioa alderatuta ebaluatzen diren inguruabarretan. Finantza aktiboaren jabetzari datxekion arriskuak eta onurak laga direla ulertzen da aldakuntza horrekiko esposizioak esanguratsua izateari uzten dionean finantza aktiboarekin lotutako etorkizuneko diru fluxu garbien balio eguneratuaren aldakuntza osoarekin alderatuta, hala nola aktiboen prezio finkoko salmentak, sozietateak inolako kreditu edo interes arriskurik atxikitzen ez duen “factoring” eragiketetan egindako merkataritza kredituen lagapenak, arrazoizko balioan berrerosteko ituna duten finantza aktiboen salmentak eta finantza aktiboen titulizazioak, enpresa lagatzaileak mendeko finantzaketarik atxikitzen ez badu, inolako bermerik ematen ez badu edo bestelako arriskuren bat hartzen ez badu).

Sozietateak ez baditu arriskuak eta onurak laga edo atxiki, finantza-aktiboari baja ematen zaio haren kontrola atxiki ez duenean; lagapen hartzaileak aktibo hori osorik eta baldintzarik ezarri gabe lotu gabeko hirugarren bati eskualdatzeko duen alde bakarreko gaitasunaren arabera zehazten da egoera hori. Sozietateak aktiboaren kontrola izaten jarraitzen badu, lagatutako aktiboaren balio aldaketen eraginpean dagoen zenbatekoagatik kontabilizatzen jarraitzen du, hau da, inplikazio jarraituagatik, eta lotutako pasibo bat kontabilizatzen du.

Finantza aktiboari baja ematen zaionean, egotz dakizkiokeen transakzio kostuetatik jasotako kontraprestazio garbiaren (lortutako edozein aktibo berri ken onartutako edozein pasibo berri) eta finantza-aktiboaren kontabilitateko balioaren arteko aldeak zehazten du aktiboari baja ematean sortu den irabazia edo galera, zeina gertatzen den ekitaldiko emaitzaren parte baita.

Era berean, ondare garbian zuzenean metatutako irabazi edo galera oro galera-irabazien kontura birsailkatzen da.

Aitzitik, sozietateak ez die baja ematen finantza aktiboei, eta jasotako kontraprestazioaren zenbateko bereko finantza pasibo bat kontabilizatzen du, bere jabetzari datxezkion arriskuak eta onurak atxikitzen diren finantza aktiboen lagapenetan, hala nola efektuen deskontuan, erantzukizuna duen factoringean, prezio finkoan edo salmenta prezioari interes bat gehituta berrerosteko ituna duten finantza aktiboen salmentetan eta enpresa lagatzaileak espero diren galera guztiak xurgatzen dituzten mendeko finantziazioak edo bestelako bermeak atxikitzen dituen finantza aktiboen titulizazioetan.

e.2) Finantza pasiboak

Jaulkitako, izandako edo bereganatutako finantza tresnak finantza pasibo gisa sailkatzen dira, osorik edo zati batean, baldin eta, errealitate ekonomikoaren arabera, sozietateari kontratuzko betebeharrak ezartzen badiote, zuzeneko edo zeharkakoa, eskudirua edo bestelako finantza-aktibo bat entregatzeko, edo hirugarrenekin finantza aktiboak edo pasiboak trukatzeko betebeharrak kaltegarriak izan daitezkeen baldintzetan, hala nola jaulkitzaileak nahitaez berrerostea aurreikusten duen finantza tresna bat edo edukitzaileari eskubidea ematen diona data jakin batean zenbateko jakin batean erreskatea eskatzeko edo aldeztu aurretik zehaztutako ordainsari bat jasotzeko, betiere etekin banagarriak badaude, esate baterako, zenbait akzio erreskatagarri eta botorik gabeko akzioak edo partaidetzak.

Sailkapena eta balorazioa-

Balorazioa egiteko, honako kategoria hauetan sailkatzen dira sozietateak dituen finantza pasiboak:

1. Kostu amortizatuko finantza pasiboak:

Sozietateak kategoria honetan sailkatzen ditu finantza-pasibo guztiak, galera-irabazien kontuan aldaketak eginez arrazoizko balioan baloratu behar direnean izan ezik.

Oro har, kategoria honetan jasotzen dira merkataritza eragiketengatiko zordunketak (enpresaren trafiko eragiketengatik ondasunak eta zerbitzuak erostean sortzen diren finantza pasiboak, ordainketa geroratuarekin), eta merkataritzakoak ez diren eragiketengatiko zordunketak (eratorriak ez diren eta merkataritza jatorrikoak ez diren, baizik eta sozietateak jasotako mailegu edo kreditu eragiketetatik datozen finantza pasiboak).

Kategoria honetan jasotako finantza-pasiboak arrazoizko balioan balioesten dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa da, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuen arabera doitu. Ondoren, finantza pasibo horiek kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira. Sortutako interesak galera-irabazien kontuan kontabilizatzen dira interes tasa efektiboaren metodoa aplikatuz.

Hala eta guztiz ere, balio nominalen balioesten dira honako hauek, eskuditu fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez bada: urtebetetik gorako mugaeguna ez duten eta kontratuzko interes tasarik ez daukaten merkataritza eragiketengatiko zordunketak, bai eta hirugarrenek partaidetzen gainean eskatutako ordainketak ere, haien zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero bada.

Finantza pasiboen baja-

Sozietateak finantza pasibo bati edo haren zati bati baja ematen dio obligazioa azkendu denean, hau da, ordaindu, ezeztatu edo iraungi denean.

Sozietatearen eta kontrako alderdiaren artean zor tresnak trukutzen badira, eta zor tresna horiek funtsean baldintza desberdinak badituzte, jatorrizko finantza-pasiboaren baja erregistratuko da eta arrazoizko balioan sortzen den finantza-pasibo berria kontabilizatuko da. Era berean, finantza pasibo baten uneko baldintzen funtsezko aldaketa erregistratzen da. Baja eman zaion finantza-pasiboaren edo haren zatiaren kontabilitateko balioaren eta ordaindutako kontraprestazioaren arteko aldea —kontraprestazio horretan jasotzen dira sortutako kostuak eta komisioak, eta han jasotzen da dirua edo onartutako pasiboa ez den lagatuko aktibo oro— gertatzen den ekitaldiko galera-irabazien kontuan kontabilizatzen da.

Funtsean baldintza desberdinak ez dituzten zor tresnen trukearen kasuan, jatorrizko finantza-pasiboari ez zaio baja ematen balantzean, eta izandako edozein transakzio edo komisio kostuk finantza-pasiboaren kontabilitateko zenbatekoa doitzen du. Data horretatik aurrera, pasibo finantzarioaren kostu amortizatua zehazteko, pasibo finantzarioaren kontabilitate balioa eta baldintza berrien arabera ordaindu beharreko diru fluxuak berdintzen dituen interes tasa efektiboa aplikatzen da.

Ondorio horietarako, sozietateak uste du kontratuetak baldintzak funtsean desberdinak direla, besteak beste, kontratu berriko diru fluxuen balio eguneratua —ordaindu den edozein komisio eta jasotako edozein komisioren balio garbia barne— gutxienez ehuneko hamarrean desberdina bada jatorrizko kontratuko diru fluxu soberakinen balio eguneratuarekiko, bi zenbatekoak jatorrizko kontratuaren interes tasa efektiboaren arabera eguneratuta. Hala ere, sozietateak kontuan hartzen ditu faktore kualitatiboak ere baldintzak funtsean desberdinak diren ebaluatzeko.

Finantza aktiboen eta pasiboen konpentsazioak

Finantza aktiboak eta pasiboak konpentsatu egiten dira eta zenbateko garbia balantzean aurkezten da, sozietateak une horretan kontabilizatutako zenbatekoak konpentsatzeko eskubide galdagarria duenean eta zenbateko garbia likidatzeko edo aldi berean aktiboa gauzatzeko eta pasiboa kitatzeko asmoa duenean.

Emandako eta jasotako fidantzak

Betebehar jakin batzuen berme gisa eratutako gordailuak edo fidantzak benetan ordaindutako zenbatekoaren arabera baloratzen dira, eta zenbateko hori ez da haien arrazoizko balioaren oso desberdina.

e.3) Arrazoizko balioa

Arrazoizko balioa da aktibo bat saltzeagatik jasoko litzatekeen prezioa edo pasibo bat transferitzeko edo kitatzeko ordainduko litzatekeena, balioespen datan merkatuko partaideen artean ordenatutako transakzio baten bidez. Arrazoizko balioa zehazteko ez da kenkaririk egingo besterentzearen edo beste bitarteko batzuk xedatzearen ondorioz gerta daitezkeen transakzio kostuengatik. Ez da inola ere arrazoizko baliotzat hartzen behartutako edo premiazko transakzio baten ondorioz edo nahi gabeko likidazio egoera baten ondorioz ateratzen dena.

Merkataritza eragiketetako kredituen eta zordunketen kontabilitate balioa arrazoizko baliora hurbiltzen dela onartu da.

f) *Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokide batzuk-*

Erantsitako egoera balantzearen epigrafe honetan jasotzen dira kutzako eskudirua, kreditu erakundeetako ageriko gordailuak eta likidezia handiko epe laburreko beste inbertsio batzuk, jatorrizko epemuga hiru hilabetekoa edo txikiagoa dutenak. Bankuetako zorpekoak erantsitako egoera balantzearen “Pasibo arrunteko” “Kreditu erakundeekiko zorrak” epigrafean sailkatu dira.

g) *Mozkinen gaineko zerga-*

Arabako Batzar Nagusiek, 2004ko maiatzaren 10eko osoko bilkuran, 7/2004 Foru Araua onetsi zuten, sozietateen gaineko zergaren uztailaren 5eko 24/1996 Foru Araua aldatu zuena, besteak beste. Aldaketa horrek Arabako Bideak SA sozietateen gaineko zergatik salbuestea dakar, eta salbuespen horrek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izango ditu ondorioak.

h) *Zerbitzuak emateagatiko diru sarrerak eta beste diru sarrera eta gastu batzuk-*

Sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira, hau da, sarreren eta gastuen ondasun eta zerbitzuetako korronte erreala ematen denean. Sarrera eta gastuen ondoriozko diru korrontea edo finantza korrontea gertatzen den uneak ez du eraginik izango.

Bezeroekin konprometitutako zerbitzuen kontrola transferitzen denean, sozietateak bere jardueraren ohiko garapenagatiko diru sarrerak kontabilizatzen ditu. Une horretan, sozietateak diru sarrera baloratzen du, zerbitzu horien truke jasotzea espero duen kontraprestazioan islatzen den zenbatekoan, deskontuak eta zergak kenduta.

Bezeroekiko betebeharrak une jakin batean betetzen dira, eta, beraz, betebeharrak horiek betetzetik eratorritako diru sarrerak une horretan kontabilizatzen dira. Zehazki, bezeroak dagokion autobidetik igarotzen diren unean kontabilizatzen ditu sozietateak zerbitzuak emateagatiko diru sarrerak.

Sozietateak ekitaldia ixteko datan gauzatutako irabaziak bakarrik kontabilizatzen ditu; izan ere, aurreikus daitezkeen arriskuak eta galerak, aldi batekoak izan arren, ezagutu bezain laster kontabilizatzen dira.

i) *Hornidurak eta kontingentziak-*

Sozietatearen administratzaileek, urteko kontuak egitean, honako hauek bereizten dituzte:

- **Hornidurak:** iraganeko gertaeretatik eratorritako gaur egungo betebeharrak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak, legalak, kontratuzkoak, inplizituak edo isilbidezkoak direla ere, haiek kitatzeak baliabideak ateratzea eragin badezake, baina zehaztugabeak badira zenbatekoari edota kitapen uneari dagokionez.
- **Kontingentziak:** iraganeko gertaeren ondorioz sor daitezkeen betebeharrak, etorkizunean sozietatearen borondatearekin zerikusirik ez duen gertaera bat edo gehiago gertatzearen edo ez gertatzearen mende daudenak.

Urteko kontuetan jasotzen diren horniduretan, uste da betebeharrari erantzun behar izateko probabilitatea handiagoa dela bestela baino, eta hornidura horien zenbatekoaren arrazoizko zenbatespena egin daitekeela. Erantzukizuna edo betebeharra sortzean zuzkitzen da, betebeharraren izaeraren arabera dagokion emaitza kontuaren epigrafearen kargura.

Hornidura likidatzeko behar den ordainketaren zati bat hirugarren batek itzultzea espero denean, itzulketa aktibo independente gisa kontabilizatuko da, baldin eta jasotzea ia segurua bada.

Kontingentziak ez dira urteko kontuetan kontabilizatzen; horren ordez, memoriako oharretan ematen da haien berri, baldin eta urrunekotzat jotzen ez badira.

Betebeharrak kitatzeko edo besterentzeko behar den zenbatekoaren zenbatespen onenaren balio eguneratuaren arabera baloratzen dira hornidurak, gertakariari eta haren ondorioei buruz eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta, eta hornidura horiek eguneratzeagatik sortzen diren doikuntzak sortzen diren finantza gastu gisa erregistratzen dira. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten hornidurak direnean eta finantza eragina nabarmena ez denean, ez da inolako deskonturik egiten.

Hornidurak emaitzetara itzultzen dira, betebeharrak hori kitatzeko baliabide irteera bat gertatzeko aukera txikiagoa denean bestela baino.

j) *Kaleratzeen ondoriozko kalte ordainak-*

Indarrean dagoen legeriaren arabera, sozietateak kalte ordainak ordaindu behar dizkie baldintza jakin batzuetan beren lan harremanak deuseztatzen dituzten langileei. Beraz, arrazoizko kuantifikazioa egin ahal zaion kaleratzeagatik kalte ordainak gastu gisa erregistratzen dira kaleratzeko erabakia hartzen den ekitaldian. Erantsitako urteko kontuetan ez da kontzeptu horrengatik hornidurarik erregistratu, ez baitago horrelako egoerarik aurreikusita.

k) *Ingurumen izaerako ondare elementuak-*

Ingurumen izaerako aktibotzat hartzen dira sozietatearen jardueran modu iraunkorrean erabiltzen diren ondasunak, zeinen helburu nagusia baita ingurumen inpaktua minimizatzea eta ingurumena babestea eta hobetzea, etorkizuneko kutsadura murriztea edo ezabatzea barne dela.

Sozietateak helburu nagusi hauekiko eragiketak egiten ditu: bere jardueren ondorioek ingurumenean eragiten dituzten kalteak prebenitu, gutxitu edo konpondu. Helburu horietarako egiten diren gastuak ez dira esanguratsuak, eta galera-irabazien kontura kargatzen dira, egin ahala.

Egindako ebaluazioak adierazten du sozietateak nolana ere ez duela ondarearekin, finantza egoerarekin eta horien emaitzekin lotuta garrantzitsua izan daitekeen ingurumen arloko erantzukizun, gastu, aktibo, hornidura edo arriskurik.

l) *Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak-*

Itzultzekoak ez diren dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak, oro har, zuzenean ondare garbian kontabilizatutako sarrera gisa kontabilizatzen dira, haien emakida ofiziala lortzen denean eta emateko baldintzak bete direnean edo haiek jasotzeari buruzko arrazoizko

zalantzarik ez dagoenean, eta galera-irabazien kontuan kontabilizatzen dira sarrera gisa, haiek eragindako gastuekin erlazionatuta. Itzultzekoak diren dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak erakundearen pasibo gisa erregistratzen dira, itzuli behar ez diren arte, eta une horretara arte ez da diru sarrerarik erregistratzen.

Diruzko dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak emandako zenbatekoaren arrazoizko balioan balioesten dira, eta diruzkoak ez direnak, berriz, jasotako aktiboaren arrazoizko balioan.

Itzultzekoak ez diren dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak emaitzei egozteko, haien helburua hartzen da kontuan.

Ustiapeneko dirulaguntzak emaitzetan ordaintzen dira ematen diren unean, etorkizuneko ekitaldietako ustiapen defizita finantzatzeko erabiltzen direnean izan ezik, kasu horretan ekitaldi horiei egotziko baitzaizkie. Gastu espezifikoak finantzatzeko ematen badira, finantzatutako gastuak sortu ahala egotziko dira.

Itzultzekoak ez diren kapitaleko dirulaguntzak emandako zenbatekoaren edo ondasunaren arrazoizko balioan baloratzen dira, diruzkoak diren ala ez kontuan hartuta, eta emaitzei egotzen zaizkie, diruz lagundutako elementuetarako aldi horretan egindako amortizaziorako zuzkiduraren proportzioan edo, hala badagokio, besterentzea egiten denean, baja ematean edo narriaduragatik balioa zuzentzen denean.

m) Transakzioak, lotura duten alderdiekin-

Urteko kontuak aurkezteari dagokionez, ulertuko da beste enpresa bat taldeko kide dela bi enpresak Merkataritza Kodeko 42. artikuluan sozietate taldeentzat aurreikusitakoaren antzeko zuzeneko edo zeharkako kontrol harreman baten bidez lotuta daudenean edo edozein bitartekoren bidez elkarrekin jarduten duten pertsona fisiko edo juridiko batek edo batzuek kontrolatzen dituztenean, edo akordioen edo estatutu klausulen ondorioz zuzendaritza bakarraren mende daudenean.

Sozietateari lotutako aldetzat hartuko dira, taldeko enpresez gain, sozietatearen edo sozietate nagusiaren boto eskubideetan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten pertsona fisikoak, partaidetza batean edo bestean eragin nabarmena izateko modukoa bada; gertuko senideak; sozietateko edo haren enpresa nagusiko langile giltzarriak (enpresaren jardueren plangintzan, zuzendaritzan eta kontrolean, zuzenean edo zeharka, agintea eta erantzukizuna duten pertsona fisikoak), horien artean daudela administratzaileak eta zuzendariak eta haien senideak; bai eta lehen aipatu diren pertsonen eragin nabarmena izan dezaketen erakundeak.

Era berean, lotutako aldetzat hartuko dira sozietatearekin kontseilariren edo zuzendariren bat partekatzen duten enpresak, salbu eta kontseilari edo zuzendari horrek eragin nabarmenik ez badu bien finantza eta ustiapen arloko politiketan, eta sozietatearen administratzailearen (pertsona fisikoa edo juridikoa) gertuko senideak.

Oro har, sozietateak merkatu balioei lotuta egiten ditu eragiketa guztiak, eta, beraz, sozietatearen administratzaileek uste dute ez dagoela alderdi horrengatik etorkizunean garrantzizko pasiboak eragin ditzakeen arrisku nabarmenik.

n) Aktiboaren eta pasiboaren sailkapena: korrontea eta ez-korrontea-

Erantsitako balantzean, saldoak ez -korrontek eta korrontek dira. Sozietateak ustiapen ziklo normalean (urteko ekitaldiari dagokio) saltzea, kontsumitzea, ordaintzea edo egitea espero

duen saldoak dira korronteak. Sailkapen horren barruan jasotzen ez diren gainerako guztiak ez-korronteak dira. Ez korrontetzat hartzen dira hamabi hilabete baino gehiagoko epemuga duten aktiboak eta pasiboak, epemuga data horretatik aurrera zenbatzen hasita.

o) Eskudiru fluxuen egoera

Diru fluxuen egoeretan, honako adierazpen hauek erabiltzen dira, zentzu hauetan:

Eskudiru fluxuak-

Eskudiruaren eta haren baliokideen sarrerak eta irteerak, sarrera eta irteeratzat hartuta likidezia handiko eta balioa aldatzeko arrisku txikiko epe laburreko inbertsioak.

Ustiapen jarduerak-

Sozietatearen jardura tipikoak, baita inbertsiontzat edo finantzaketa jardueratzat jo ezin diren beste batzuk ere.

Inbertsio jarduerak-

Aktibo ez-korronteak beste bitarteko batzuen bidez eskuratu, besterendu eta erabiltzekoak eta eskudiruan eta haren parekoetan jasotzen ez diren beste inbertsio batzuk.

Finantzaketa jarduerak-

Ondare garbiaren eta pasiboen tamainan eta osaeran aldaketak eragiten dituzten jarduerak, ustiapen jardueren parte ez direnak.

(5) Ibilgetu ukiezina-

Hauek izan dira 2025ko eta 2024ko ekitaldietan ibilgetu ukiezinaren partidetan izandako mugimenduak, dagozkien amortizazio metatuetatik:

Ejercicio 2025:	Euros				
	Saldo al 31.12.2024	Adiciones o Dotaciones	Bajas	Traspasos	Saldo al 31.12.2025
COSTE:					
Concesiones administrativas	153.006.581	-	-	-	153.006.581
Activación financiera, acuerdo de concesión	19.771.190	644.031	-	-	20.415.221
Aplicaciones informáticas	184.019	344	-	-	184.363
	<u>172.961.790</u>	<u>644.375</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>173.606.165</u>
AMORTIZACIÓN ACUMULADA:					
Concesiones administrativas	(64.201.871)	(4.795.398)	-	-	(68.997.269)
Activación financiera, acuerdo de concesión	-	-	-	-	-
Aplicaciones informáticas	(160.840)	(5.498)	-	-	(166.338)
	<u>(64.362.711)</u>	<u>(4.800.896)</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>(69.163.607)</u>
NETO:					
Concesiones administrativas	88.804.710	(4.795.398)	-	-	84.009.312
Activación financiera, acuerdo de concesión	19.771.190	644.031	-	-	20.415.221
Aplicaciones informáticas	23.179	(5.154)	-	-	18.025
	<u>108.599.079</u>	<u>(4.156.521)</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>104.442.558</u>

Ejercicio 2024:

	Euros			
	Saldo al 31.12.2023	Adiciones o Dotaciones	Bajas	Traspasos
COSTE:				
Concesiones administrativas	152.982.098	24.483	-	-
Activación financiera, acuerdo de concesión	19.004.420	766.770	-	-
Aplicaciones informáticas	183.567	452	-	-
	<u>172.170.085</u>	<u>791.705</u>	<u>-</u>	<u>-</u>
AMORTIZACIÓN ACUMULADA:				
Concesiones administrativas	(59.496.810)	(4.705.061)	-	-
Activación financiera, acuerdo de concesión	-	-	-	-
Aplicaciones informáticas	(155.317)	(5.523)	-	-
	<u>(59.652.127)</u>	<u>(4.710.584)</u>	<u>-</u>	<u>-</u>
NETO:				
Concesiones administrativas	93.485.288	(4.680.578)	-	-
Activación financiera, acuerdo de concesión	19.004.420	766.770	-	-
Aplicaciones informáticas	28.250	(5.071)	-	-
	<u>112.517.958</u>	<u>(3.918.879)</u>	<u>-</u>	<u>-</u>
				<u>108.599.079</u>

Finantza gastu kapitalizatuak

Sozietateak 2025ko ekitaldian finantza gastuen 644.031 euro kapitalizatu ditu "Finantza aktibazioa, emakida akordio" gisa (aurreko ekitaldian, 766.770 euro), abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduko bigarren arauko 3. apartatuan ezarritakoaren arabera. Agindu horren bidez, eraikuntzaren finantzaketako finantza gastu geroratuak aktibatzen dira, sozietatearen ekonomia eta finantza plana oinarri hartuta, etorkizunean horiek berreskuratuko diren ebidentzia baldin badago. 2025eko abenduaren 31n, emakida aldiak kapitalizatutako finantza gastuak 20.415.221 eurokoak ziren.

Guztiz amortizatutako eta erabiltzen diren elementuak

Hona hemen 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n guztiz amortizatuta zeuden eta erabiltzen ari ziren aktiborik esanguratsuenen banakapena, epigrafeka, eta haien kostu balioa, eurotan:

Kontzeptua	2025	2024
Administrazio emakidak	1.903.706	1.903.706
Aplikazio informatikoak	151.094	146.930
Guztira	2.054.800	2.050.636

(6) Ibilgetu materiala-

Hauek izan dira 2025ko eta 2024ko ekitaldietan ibilgetu materialaren partidetan izandako mugimenduak, dagozkien amortizazio metatuetatik:

Ejercicio 2025:

Euros					
	Saldo al 31.12.2024	Adiciones o Dotaciones	Bajas	Traspasos	Saldo al 31.12.2025
COSTE:					
Instalaciones técnicas, y otro inmovilizado material-					
Otras instalaciones	23.459	-	-	-	23.459
Mobiliario	108.497	24.019	-	-	132.516
Equipos proceso de información	235.973	1.500	-	-	237.473
Otro inmovilizado material	9.231	-	-	-	9.231
	<u>377.160</u>	<u>25.519</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>402.679</u>
	<u>377.160</u>	<u>25.519</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>402.679</u>
AMORTIZACIÓN ACUMULADA:					
Instalaciones técnicas, y otro inmovilizado material-					
Otras instalaciones	(15.298)	(1.121)	-	-	(16.419)
Mobiliario	(100.723)	(2.618)	-	-	(103.341)
Equipos proceso de información	(167.126)	(5.300)	-	-	(172.426)
Otro inmovilizado material	(2.898)	(218)	-	-	(3.116)
	<u>(286.045)</u>	<u>(9.257)</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>(295.302)</u>
	<u>(286.045)</u>	<u>(9.257)</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>(295.302)</u>
NETO:					
Instalaciones técnicas, y otro inmovilizado material-	91.115	16.262	-	-	107.377
	<u>91.115</u>	<u>16.262</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>107.377</u>

Ejercicio 2024:

Euros					
	Saldo al 31.12.2023	Adiciones o Dotaciones	Bajas	Traspasos	Saldo al 31.12.2024
COSTE:					
Instalaciones técnicas, y otro inmovilizado material-					
Otras instalaciones	23.459	-	-	-	23.459
Mobiliario	108.497	-	-	-	108.497
Equipos proceso de información	233.915	2.058	-	-	235.973
Otro inmovilizado material	7.981	1.250	-	-	9.231
	<u>373.852</u>	<u>3.308</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>377.160</u>
	<u>373.852</u>	<u>3.308</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>377.160</u>
AMORTIZACIÓN ACUMULADA:					
Instalaciones técnicas, y otro inmovilizado material-					
Otras instalaciones	(14.177)	(1.121)	-	-	(15.298)
Mobiliario	(99.914)	(809)	-	-	(100.723)
Equipos proceso de información	(160.157)	(6.969)	-	-	(167.126)
Otro inmovilizado material	(2.685)	(213)	-	-	(2.898)
	<u>(276.933)</u>	<u>(9.112)</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>(286.045)</u>
	<u>(276.933)</u>	<u>(9.112)</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>(286.045)</u>
NETO:					
Instalaciones técnicas, y otro inmovilizado material-	96.919	(5.804)	-	-	91.115
	<u>96.919</u>	<u>(5.804)</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>91.115</u>

Gutziz amortizatutako eta erabiltzen diren elementuak

Gutziz amortizatuta eta erabiltzen dauden aktiborik esanguratsuenen banakapena, epigrafeka, erakusten da hemen, haien kostu balioa adieraziz:

Kontzeptua	2025	2024
Instalazio teknikoak	2.753	2.753

Altzariak	100.665	100.285
Ekipo informatikoak	142.904	142.904
Guztira	246.322	245.942

Errentamendu operatiboak-

galera-irabazien kontuan, bulegoen eta instalazioen alokairuari dagozkion errentamendu operatiboaren gastuak jaso dira, 28.475 euroko zenbatekoan (14.293 euro 2024an).

(7) Finantza aktiboak

Finantza aktiboen kategoriak-

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n egin zen finantza aktiboen kategorien eta moten arabera sailkapena, eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk kontuan hartu gabe (9. oharra), baita horien kontabilitateko balioa ere. Honako hau da:

31.12.2025:

Categorías	Euros	
	Activos financieros a largo plazo	
	Créditos, Derivados y Otros	Total
Activos valorados a coste amortizado	7.220	7.220
	<u>7.220</u>	<u>7.220</u>

Categorías	Euros	
	Activos financieros a corto plazo	
	Créditos, Derivados y Otros	Total
Activos valorados a coste amortizado	2.665.260	2.665.260
	<u>2.665.260</u>	<u>2.665.260</u>

31.12.2024:

Categorías	Euros	
	Activos financieros a largo plazo	
	Créditos, Derivados y Otros	Total
Activos valorados a coste amortizado	7.220	7.220
	7.220	7.220

Categorías	Euros	
	Activos financieros a corto plazo	
	Créditos, Derivados y Otros	Total
Activos valorados a coste amortizado	2.721.721	2.721.721
	2.721.721	2.721.721

Sozietatearen administratzaileek uste dute aurreko taulan zehaztutako finantza aktiboen kontabilitateko zenbatekoa haien arrazoizko balioaren hurbilketa onargarria dela.

Epemugen araberako analisia-

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, ez dago epe luzeko epemuga zehatza edo mugagarria duen finantza aktiborik.

(8) Merkataritzako zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, honako hauek dira “Merkataritzako zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk” epigrafea osatzen duten kontuen saldoak:

	Euros	
	2025	2024
Cientes por ventas y prestación de servicios	2.655.564	2.713.086
Deudores varios	9.696	8.635
	2.665.260	2.721.721

(9) Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk

Atxikitako balantzeen epigrafe honetako saldoaren osaera hau zen 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n:

Sozietateak mantentzen dituen kontu korronteak libreki erabiltzekoak dira eta merkatuko interes tasen arabera ordainduta daude. 2025ko ekitaldian, 96.855 euroko zenbatekoa erregistratu da kontu korronteko saldo horietatik eratorritako diru sarrera finantzario gisa (146.584 euro 2024ko ekitaldian).

(10) Finantza tresnen arrisku izaerari eta mailari buruzko informazioa

Sozietatearen jarduerak zenbait finantza arriskuren eraginpean daude: merkatuari dagokio arriskua (kanbio tasaren arriskua, interes tasaren arriskua eta prezioen arriskua barne direla), kredituari dagokion arriskua eta likidezari dagokion arriskua.

Sozietatearen finantza atalak kontrolatzen du finantza arriskua kudeatzeko erantzukizuna, zeinak administrazio organoak onartutako politiken arabera identifikatzen, ebaluatzen eta estaltzen baititu finantza arriskuak.

a) Kreditu arriskua

Sozietatearen finantza aktibo nagusiak kutxa eta eskudiruko saldoak, merkataritza zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk, eta inbertsioak dira, eta sozietateak daukan kreditu arriskurik handiena dira, finantza aktiboei dagokienez.

Sozietatearen kreditu arriskua batez ere haren merkataritza zorrei egotz dakieke. Zenbatekoak kaudimengabeziarako horniduren balantze garbian islatzen dira. Sozietatearen zuzendaritzak zenbatesten ditu kaudimengabezia horiek aurreko ekitaldietako esperientziaren eta egungo ingurune ekonomikoaren balorazioaren arabera.

Sozietateak ez dauka kreditu arriskuaren metaketa esanguratsurik, eta arriskua kontrako alderdi eta bezero kopuru handi baten artean dago banatuta.

b) Likidezia arriskua

Sozietateak ez dauka likidezia arrisku esanguratsurik; izan ere, eskudiru eta kreditu erabilgarritasun nahikoak dauzka bere ohiko eragiketetan behar diren irteerei aurre egiteko. Unean-unean finantzaketa behar izanez gero, mailegu eta kreditu polizetara jotzen du sozietateak.

Zuzendaritzak etengabeko jarraipena egiten die sozietatearen likidezia erreserbaren aurreikuspenei, baita finantza zor garbiari ere, hura osatzen duten partiden une bakoitzeko egoera erreala eta epe labur eta ertainean espero den bilakaeraren berrikuspen etengabeko eta dinamikoa oinarri hartuta. Hala, behar adinako aurrerapenaz aurreratu ahal izango da epe labur edo ertainerako finantzaketa premiarik izan daitekeen.

c) Merkatuko arriskuak

Arrisku hori minimizatzeko lan egiten ari da, produktuak eta merkatuak dibertsifikatuz.

d) Kanbio tasaren arriskua

Sozietateak ez dauka kanbio tasaren arrisku esanguratsurik eta, beraz, ez du eragiketarik egiten estaldurako finantza tresnekin.

e) Interes tasaren arriskua

Interes tasen aldaketek interes tasa finkoa sortzen duten aktibo eta pasiboen arrazoizko balioa eta interes tasa aldagarri batera erreferentziatutako aktibo eta pasiboen etorkizuneko fluxuak aldatzen dituzte.

Interes tasen arriskua kudeatzearen helburua da zorraren egituraren oreka lortzea, zorraren kostua minimizatu ahal izateko urte anitzeko horizontean, galera-irabazien kontuan aldakortasun txikia izanda.

Sozietateak kontratatutako zorraren erreferentziazko interes tasa, batez ere Euriborra da.

(11) Funts propioak

Hau da 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan “Funts propioak” kapituluko epigrafeetan izandako mugimendua:

2025eko ekitaldia

	Euros			
	Saldo al 31.12.2024	Ampliación del Capital Social	Aplicación del Resultado 2024	Resultado del ejercicio 2025
Capital escriturado	60.968.300	759.400	-	-
Reservas				
Reserva legal	1.543.175	-	357.982	-
Reservas voluntarias	5.912.271	-	-	-
	7.455.446	-	357.982	-
Resultados de ejercicios anteriores				
Remanente	2.937.925			2.937.925
Resultados negativos de ejercicios anteriores (*)	(26.093.531)	-	1.311.789	-
	(23.155.606)	-	1.311.789	-
Resultado del ejercicio (*)	1.669.771	-	(1.669.771)	2.951.085
	46.937.911	759.400	-	2.951.085
				50.648.396

(*) Cifras re-expresadas. Ver nota 2.7

2024eko ekitaldia

	Euros			
	Saldo al 31.12.2023	Ampliación del Capital Social	Aplicación del Resultado 2023	Resultado del ejercicio 2024
Capital escriturado	60.208.900	759.400	-	-
Reservas				
Reserva legal	1.297.234	-	245.941	-
Reservas voluntarias	5.912.271	-	-	-
	7.209.505	-	245.941	-
Resultados de ejercicios anteriores				
Remanente	2.937.925			2.937.925
Resultados negativos de ejercicios anteriores (*)	(28.307.003)	-	2.213.472	-
	(25.369.078)	-	2.213.472	-
Resultado del ejercicio (*)	2.459.413	-	(2.459.413)	1.669.771
	44.508.740	759.400	-	1.669.771
				46.937.911

(*) Cifras re-expresadas. Ver nota 2.7

Eskrituratutako kapitala-

2024ko apirilaren 23an, Akziodunen Aparteko Batzar Unibertsalak onetsi zuen kapitala 759.400 eurotan gehitzea, ehuna euroko balio izendatua duten 7.594 akzio izendun harpidetuz. Zenbateko hori

2024ko maiatzaren 29an ordaindu zen, eta 2024ko ekainaren 10ean formalizatu zen eskritura publikoan.

2025eko ekainaren 3an, Akziodunen Aparteko Batzar Unibertsalak onetsi zuen kapitala 759.400 eurotan gehitzea, ehuna euroko balio izendatua duten 7.594 akzio izendun harpidetuz. Zenbateko hori 2025eko uztailaren 9an ordaindu zen, eta 2025eko uztailaren 31n formalizatu zen eskritura publikoan.

Akziodun bakarrak harpidetu eta ordaindu beharko dituen gehikuntza horien ondoren, harpidetutako eta osorik ordaindutako kapital berria 617.277 akzio arrunt eta izendunek ordezkatzan dute, 1.etik 617.277.era arte, biak barne, eta kapital sozial berria 61.727.700 euro da.

Legezko erreserba

Kapital Sozietatearen Legearen 274. artikulua arabera zuzkitu da legezko erreserba, zeinak ezartzen duen bertara bideratuko dela ekitaldiko mozkinaren % 10aren pareko kopuru bat, harik eta sozietatearen kapitalaren % 20ra, behintzat, iritsi arte. Ezin da banatu, eta galerak konpentsatzeko erabiltzen bada, birjarri egin beharko da etorkizuneko mozkinekin, helburu horretarako beste erreserbarik eskura ez dagoen kasuetan. 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, legezko erreserba ez zegoen guztiz hornituta.

Borondatezko erreserbak

Sozietateak ezin dio dibidenduak, erreserbak edo beste edozein ordainketa edo ordainsari banatu akziodun bakarrari, ez eta akziodun horren partaidetza duen beste edozein konpainia edo erakunderi ere, edozein motatakoa dela ere, finantza-erakunde hartzekodun guztiek aldeztatik eta idatziz baimena eman ezean (12. oharra).

Banatu gabeko dibidenduen eta erreserben banaketa

Akziodun bakarrak dibidenduak ez banatzea erabaki du 2025eko ekitaldian eta azken bost ekitaldietan.

(12) Finantza pasiboak

Finantza pasiboen kategoriak-

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n egin zen finantza pasiboen kategorien eta moten arabera sailkapena eta horien kontabilitateko balioa honako hau da:

31.12.2025:		Euros	
		Pasivos financieros	
		A largo plazo	
Categoría	Deudas con entidades de crédito	Otros pasivos financieros	Total
Pasivos financieros a coste amortizado	41.879.241	8.804	41.888.045

31.12.2024:		Euros	
		Pasivos financieros	
		A largo plazo	
Categoría	Deudas con entidades de crédito	Otros pasivos financieros	Total
Pasivos financieros a coste amortizado	50.960.156	8.804	50.968.960

31.12.2025:		Euros	
		Pasivos financieros	
		A corto plazo	
Categoría	Deudas con entidades de crédito	Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar	Total
Pasivos financieros a coste amortizado	9.293.062	5.909.168	15.202.230

31.12.2024:		Euros	
		Pasivos financieros	
		A corto plazo	
Categoría	Deudas con entidades de crédito	Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar	Total
Pasivos financieros a coste amortizado	8.216.778	5.432.793	13.649.571

Erakunde publikoei ordaindu beharreko kontuak ez dira finantza tresnatzat hartzen.

Sozietatearen administratzaileen ustez, "kostu amortizatuko pasibo finantzarioen" kontabilitateko zenbatekoa arrazoizko balioaren antzekoa da.

Finantza pasiboen epemugen araberako sailkapena-

Finantza pasiboen epemugen araberako sailkapena hau da:

31.12.2025:

Euros

	2026	2027	2028	2029	2030	Resto	Total l/p	Total
Deudas con entidades de crédito	9.293.062	8.824.673	5.500.000	5.918.568	-	21.636.000	41.879.241	51.172.303
Fianzas	-	-	-	-	-	8.804	8.804	8.804
Proveedores	19.618	-	-	-	-	-	-	19.618
Acreedores	5.888.736	-	-	-	-	-	-	5.888.736
Otras cuentas a pagar	814	-	-	-	-	-	-	814
	15.202.230	8.824.673	5.500.000	5.918.568	-	21.644.804	41.888.045	57.090.275

31.12.2024:

Euros

	2025	2026	2027	2028	2029	Resto	Total l/p	Total
Deudas con entidades de crédito	8.216.778	9.080.915	8.824.683	5.500.000	5.918.558	21.636.000	50.960.156	59.176.934
Fianzas	-	-	-	-	-	8.804	8.804	8.804
Proveedores	4.496	-	-	-	-	-	-	4.496
Acreedores	5.427.269	-	-	-	-	-	-	5.427.269
Otras cuentas a pagar	1.028	-	-	-	-	-	-	1.028
	13.649.571	9.080.915	8.824.683	5.500.000	5.918.558	21.644.804	50.968.960	64.618.531

Galera eta irabazi garbiak finantza pasiboen kategorien arabera-

Bestalde, lehen zehaztutako pasibo finantzarioetatik eratorritako galera eta irabazi garbiak 1.842.109 eurokoak izan dira (2.872.628 euro 2024ko ekitaldian), gastu finantzarioen kontzeptuan, interes tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Finantza gastu horiek sozietateak «finantza aktibazio, emakida akordio» gisa kapitalizatutako zenbatekoaren garbiak dira, eta, 2025eko ekitaldian, 644.031 euro izan dira (766.770 euro 2024ko ekitaldian) (5. oharra).

(13) Kreditu erakundeekiko zorrak

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, hau da kreditu erakundeekiko zorren laburpena:

Euros

	2025			2024		
	A corto plazo	A Largo plazo	Total	A corto plazo	A Largo plazo	Total
Préstamos	9.080.924	41.879.241	50.960.165	7.961.921	50.960.156	58.922.077
Intereses devengados	230.596	-	230.596	267.180	-	267.180
Tarjeta crédito	(18.458)	-	(18.458)	(12.323)	-	(12.323)
	9.293.062	41.879.241	51.172.303	8.216.778	50.960.156	59.176.934

Sozietateak abenduaren 31n honako mailegu hauek ditu:

	Euros			
	Saldo al 31/12/2025		Saldo al 31/12/2024	
	Dispuesto	Límite	Dispuesto	Límite
Crédito sindicado Tramo A	16.905.598	66.500.000	24.367.510	66.500.000
Crédito construcción sindicado	12.418.567	27.964.568	12.918.567	27.964.568
Crédito subordinado	12.000.000	12.000.000	12.000.000	12.000.000
Crédito subordinado	9.636.000	9.636.000	9.636.000	9.636.000
	50.960.165	116.100.568	58.922.077	116.100.568

2004ko abenduaren 22an, Arabako Bideak, SA sozietateak epe luzeko kreditu sindikatua hitzartu zuen, gehienez ere 74.500.000 eurokoa.

Kredituaren zenbateko osoa bi tartetan banatzen da: **A eta B tarteak**. **A tarteari** dagokion zatia (66.500.000 euros) proiektuaren inbertsio osoaren aurrekontua zati batean finantzatzeko da, eta horren epemuga 2031ko ekainaren 30a da.

Hona hemen mailegu horiei dagokien interes tasa:

Tartea	Interes aldia	Marjina
A tartea	1. xedapenetik 2013/12/31ra	% 1,55
	2014/01/01etik 2019/12/31ra arte	% 1,65
	2020/01/01etik 2021/12/31ra arte	% 1,80

Interes tasak Euriborra gehi marjina izango dira.

Maileguaren **B tartea**, 8 milioi eurokoa, ez zen erabili.

Era berean, 2004ko abenduaren 22an, bonoetan mobilizatu daitekeen eraikuntzako kreditu kontratu sindikatu bat sinatu zen, gehienez 24.000.000 eurokoa, proiektuaren inbertsio osoaren aurrekontua zati batean finantzatzeko (BEZik gabe).

Mailegu horren epemuga autobidea abian jarri ondoko hiru hilaren lehena zen edo 2010eko urtarrilaren 1a. Mailegu horri zegokion interes tasa honako hau zen: Euriborra gehi % 1,55.

Eraikuntzako kreditu kontratu horri dagokionez, azken mugaegunean erakunde egiaztatzaileek kredituaren zenbatekoa bonu jaulkipen baten edo batzuen bidez birfinantzatzeko konpromisoa hartu zuten, eta horien harpidetzaren zenbatekoarekin eraikuntza kredituaren kontua azken mugaegunean amortizatu zen. Hona hemen jaulkipenen ezaugarriak:

Jaulkipena	Urtea	Mota	Zenbatekoa (eurotan)	Bonuaren epea	Marjina
Lehenengoa	2009	Zero kupoia	24.000.000	10 urte	% 1,50
Bigarrena	2018	Urteko kupoia	24.000.000 + 1. jaulkipeneko interesak	10 urte	% 1,25

Hirugarrena	2028	Urteko kupoia	24.000.000 + 1. jaulkipeneko interesak	4 urte	% 1,25
-------------	------	---------------	--	--------	--------

Azkenean jaulkipen horiek ez ziren gauzatu, autobidearen eraikuntzan izandako atzerapenengatik. Halaber, 2009ko abenduaren 16an, eraikuntzako kreditu sindikatuko kontratu berri bat sinatu zen, 24.000.000 eurokoa, eta hori erabili da eraikuntza kontratuaren babesean emandako aurreko kreditua erabat amortizatzeko eta baliogabetzeko.

2017ko martxoaren 30ean sozietatearen administratzaileek akordio bat lortu zuten finantza erakundeekin eraikuntzako kreditua birfinantzatzeko, 27.964.568 eurotan. Haren azken epemuga 2029ko abenduaren 30ekoa da eta amortizazio egutegi normalizatu berria adostu da. Aplikatu den interes tasa Euriborra gehi % 1,5 izango da 2018ko apirilaren 6ra arte, % 1,65ekoa 2019ko abenduaren 31ra arte eta % 1,80koa amaierako mugaegunera arte.

Era berean, 2008ko apirilaren 23an eta 2010eko abenduaren 28an sozietateak mendeko bi maileguren kontratuak sinatu zituen; bata 12.000.000 eurokoa, eta bestea 9.636.000 eurokoa, proiektuko gaingastuak zati batean finantzatzeko eta A tarteko epe luzeko kredituen interesak ordaintzeko eta eraikuntzako kredituko kontratuaren interesak ordaintzeko, osoa xedatu ondoren. Interes tasa Euribor + 0,85 da haietako lehenengorako eta haren epemuga 2032ko irailaren 30a izango da. Bigarrenarentzat interes tasa Euribor + 1,70 da eta epemuga 2033ko abenduaren 28an izango du.

Kreditu honetako kontratu klausuletan ezarritakoari jarraiki, 2010etik aurrera sozietateak jarraian zehazten diren finantza ratioei eutsi beharko die, auditaturiko kontuen gainean urte bakoitzeko abenduaren 31n kalkulatuta: zorraren zerbitzuaren gaineko estaldura ratioa eta proiektuaren zorraren gaineko funts propioen ratioa. Aurrez aipaturiko ratioak betetzen ez badira, sozietateak dagozkion ekintzak egin beharko ditu kontratuan xedatutakora egokitu daitezen; horretarako, urte bakoitzeko ekainaren hogeita hamarrean hasi eta hogeita hamar eguneko epea egongo da, kontratuaren edukiko hitzez hitzeko irakurketatik ondorioztatzen denez.

Sozietateak 2004an interes estalduraren eta inflazio estalduraren kontratuak kontratatu zituen, maileguen erabilera eta amortizazio aldietarako eta autobidearen ustiapen eperako.

Gainera, 2004ko ekitaldian Sozietateak honako hauetatik eratorritako kreditu eskubideen pignorazio kontratuak sinatu zituen:

- Jasandako BEZa itzultzeko eskaerak.
- BEZaren kontua.
- Estaldura kontratuak.
- Proiektuaren kontratuak.
- Proiektuko kontuak.

2009ko ekitaldian, aurreko bermeak berresteko kontratua sinatu zuen sozietateak.

Halaber, 2017an, Zorraren Zerbitzuaren Erreserba Kontuaren hornidura sistema aldatzea erabaki zen, haren saldoa hura baino hamar egun baliadun lehenagoko hurrengo ordainketa datako zorraren zerbitzua izateko.

Era berean, 2017an, une horretara arte zeuden estaldura kontratuak azkentzea erabaki zen.

(14) Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiari buruzko informazioa. Hirugarren xedapen gehigarria. Uztailaren 5eko 15/2010 Legeko “informazio betebeharra”

Abenduaren 29ko 3/2004 Legea —merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen ditu— aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legean eta Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren (KKAI) 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpenean ezarritakoari jarraikiz, merkataritzako eragiketetan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epearekin lotuta urteko kontuen memorian jaso behar den informazioari dagokionez, 2025ko eta 2024ko ekitaldietan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informazioa zehazten da hemen:

	Días	
	2025	2024
Periodo medio de pago a proveedores	35,05	35,05
Ratio de operaciones pagadas	37,77	35,65
Ratio de operaciones pendientes de pago	19,28	27,98

	Euros	
	2025	2024
Total pagos realizados	34.667.544	32.632.719
Total pagos pendientes	5.964.859	2.777.927

KKAIaren Ebazpenean aurreikusitako informazioa emateko soilik, hornitzailetzat hartzen dira ondasun edo zerbitzu hornitzaileekiko zorren balantzearen pasibo korrontean jasotako hartzekodun komertzialak.

Era berean, “hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeztat” hartzen da ondasunak entregatzen direnetik edo hornitzailearen kontura zerbitzuak ematen direnetik eragiketaren ordainketa materiala egiten denera bitartean igarotzen den denbora.

Horrez gain, 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, hemen zehazten da berankortasunari buruzko araudian ezarritako gehieneko epea baino lehen ordaintzen diren fakturen kopuruari eta diru bolumenari buruzko informazioa, baita faktura kopuru osoaren eta hornitzaileei egindako ordainketen guztizko diruaren gaineko ehunekoari buruzkoa ere, 2025ko eta 2024ko ekitaldiei dagokienez:

Facturas pagadas a proveedores en un periodo inferior al máximo legal							
Euros		Número		% sobre el total de pagos		% sobre el nº total de facturas	
2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024
12.933.799	14.229.207	428	432	37,31%	72,18%	74,35%	74,35%

Merkataritza eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera, sozietateari 2025eko eta 2024ko ekitaldietan aplikatu beharreko legezko gehieneko ordainketa epea 30 egunekoa da. Hala ere, ordainketa epeak luzatu ahal izango dira, alderdiek hala itunduz gero, baina inola ere ezin izango da adostu 60 egun natural baino gehiagoko eperik.

(15) Zerga egoera

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, administrazio publikoekiko saldoek honako kontzeptu hauek dituzte:

	Euros			
	31.12.2025		31.12.2024	
	Deudores	(Acreedores)	Deudores	(Acreedores)
Corriente-				
Otros créditos (deudas) con las Administraciones Públicas-				
Retenciones practicadas por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas	-	11.010	-	12.749
Deudora(Acreedora) por IVA	-	107.826	-	192.327
Organismos de la Seguridad Social	-	13.366	-	9.724
	-	132.202	-	214.800

Zerga egoera-

Indarrean dagoen legeriaren arabera, zergak ezin daitezke eman behin betiko likidatutzat harik eta zerga agintariak aitorpenak ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio epea pasatu arte. 2025eko ekitaldia ixtean, azken lau ekitaldiak ikuskatzeko zabalik ditu sozietateak, aplikagarri zaizkion zerga nagusietarako.

Sozietateko administratzaileen iritziz, ez da espero etorkizuneko ikuskapenen ondoriozko pasibo fiskal esanguratsurik aplikatu beharreko arau fiskalei buruz egin daitezkeen interpretazioen ondorioz, eta, beraz, 2025ko ekitaldiko urteko kontuek ez dute hornidurarik islatzen kontzeptu horri dagokionez.

(16) Diru sarrerak eta gastuak

Hona hemen 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietako galera-irabazien kontuetako epigrafe batzuen edukiaren banakapena:

Negozio zifraren zenbateko garbia

2025eko eta 2024ko ekitaldietako negozio zifraren zenbateko garbi osoa Arabako autobideen eta errepedeen ustiapenari dagokio, bidesariak kobratzetik lortutako diru sarrerak direla eta.

Langile gastuak-

2025eko eta 2024ko ekitaldietan sortutako langile gastuen xehetasunak hauek dira:

	Euros	
	2025	2024
Sueldos, salarios y asimilados-		
Sueldos y salarios	349.858	362.305
	349.858	362.305
Cargas Sociales-		
Seguridad social a cargo de la empresa	109.739	83.185
Otros gastos sociales	3.977	3.761
	113.716	86.946
	463.574	449.251

Kanpo zerbitzuak

2025ko eta 2024ko ekitaldiei dagozkien kanpoko zerbitzuen xehetasunak hauek dira:

	Euros	
	2025	2024
Arrendamientos y Cánones	28.475	14.299
Servicios de profesionales independientes	3.806.330	3.519.158
Primas de seguros	3.791	2.553
Servicios por medios de pago	118.896	100.757
Suministros	4.829	4.773
Otros servicios	63.055	69.538
	4.025.376	3.711.078

(17) Azpiegituren gaineko jarduerengatiko hornidurak

Azpiegituren gaineko jarduerengatiko hornidurak emakidari dagokion aldiaren amaieran erakunde emaileari azpiegitura itzultzeko beharrezkoak diren jardueri erantzuteko eraturako hornidurak dira, abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduaren bigarren arauan xedatutakoaren arabera; agindu horren bidez, Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoaren emakida duten enpresei egokitzeko arauak onartzen dira. Sozietatearen administratzaileek, ekonomia eta finantza planaren jarduketa xehatua oinarri hartuta, zeinak emakida amaitu arte proiektatutako aparteko kontserbazio gastuak barne hartzen baititu, hornidura horien mugimenduak erregistratu dituzte. Mugimendu horiek, beste kontzeptu batzuekin batera, erantsitako galera-irabazien kontuko “Merkataritza eragiketen ondoriozko galerak, narriadura eta horniduren aldaketa” epigrafean jasotzen dira.

2025eko eta 2024ko mugimendu horiek hauek izan dira:

	Euros
Saldo al 31 de diciembre de 2023	1.204.395
Dotaciones	119.123
Saldo al 31 de diciembre de 2024	1.323.518
Dotaciones	119.123
Saldo al 31 de diciembre de 2025	1.442.641

(18) Eragiketak eta saldoak, alderdi lotuekin

Ordainsariak eta beste prestazio batzuk
Administratzaileentzat eta Goi Zuzendaritzako langileentzat-

2025ko eta 2024ko ekitaldietan, administrazio kontseiluko kideek ez dute inolako ordainsaririk jaso karguko eginkizunak betetzeagatik, ezta beste edozein kontzepturengatik ere. Goi-zuzendaritzako kideek, berriz, ordainsari hauek jaso dituzte 2025ko eta 2024ko ekitaldietan:

	Euros	
	2025	2024
Por sueldos y salarios	96.734	95.870
	96.734	95.870

Zenbateko horiek erantsitako galera-irabazien kontuko "Langile gastuak" epigrafean daude jasota.

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, ez zegoen mailegurik, aurrerakinik edo emandako krediturik, ezta sozietateak pentsioen eta bizi aseguruaren edo erantzukizun zibileko aseguruaren arloan hartutako obligaziorik ere, administrazio kontseiluko eta sozietatearen Goi Zuzendaritzako lehengo eta oraingo kideei dagokienez, eta ez da haien konturako obligaziorik hartu berme gisa.

Administratzaileen interes gatazkei buruzko informazioa-

Kapital sozietateen legea aplikatuz, jakinarazten da sozietatearen administrazio organoko kideek ez daukatela partaidetzarik helburu sozial bera, antzekoa edo osagarria duten beste sozietate batzuetan.

Halaber, eta arestian aipatu den kapital sozietateen legearen arabera, jakinarazten da administrazio organoko kideek ez dutela merkatuko baldintza arruntetan egin ez den trafikoaz kanpokatze jo daitekeen jarduerarik egin, ez norberaren ez inoren kontura, sozietatearekin.

2025ko eta 2024ko ekitaldiak ixtean, sozietatearen administrazio kontseiluko kideek ez dute jakinarazi haiek edo haiei lotutako pertsonak, Kapital Sozietateen Legean zehazten denaren arabera, sozietatearen interesarekiko izan dezaketen gatazka egoerarik, ez zuzeneko, ez zeharkakorik.

Sozietatearen transakzioak akziodun bakarrarekin

Urtarrilaren 20ko 32/2004 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidearen Arabako zatia finantzatzeko eragiketaren egituratze ekonomikoari buruzko Foru Arau Proiektua onetsi zuen.

Martxoaren 30eko 246/2004 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak Arabako Bideak SArekin hitzarmen bat sinatzea onetsi zuen, diruzaintzako funts likidoak Arabako Foru Aldundiaren kutxako baliabideen barruan sartzeko.

Ekainaren 22ko 44/2004 Foru Dekretuaren bidez, Diputatuen Kontseiluak Vitoria-Gasteiz eta Eibar arteko AP-1 autobidearen Arabako zatia erabiltzeagatik ordaindu beharreko bidesaria ezarri zuen.

2004ko martxoaren 9an hartutako Erabakiaren bidez, Arabako Bideak SArekin Akziodunen Batzar Nagusiak erabaki zuen Arabako Bideak SArekin kapital gehikuntzan parte hartzea, eta 103.914 akzio harpidetu zituen.

Uztailaren 30eko 653/2004 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Arabako Bideak Saren kapital gehikuntzan parte hartzea, eta 49.086 akzio harpidetu zituen.

Abenduaren 21eko 1024/2004 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Arabako Bideak Saren kapital gehikuntzan parte hartzea, eta 203.198 akzio harpidetu zituen.

Apirilaren 13ko 428/2005 Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak erabaki zuen Arabako Bideak SAri bidaltzea “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidearen Lukotik Gipuzkoako probintzia mugarainoko tartea egiteko obrek eragindako Legutioko presio handiko gas sarea aldatzeko proiektua”, obren eremuan finantzatu eta gauzatzeko.

Ekainaren 3ko 640/2005 zenbakiko Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak erabaki zuen “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea egiteko ukituko diren linea elektrikoak aldatzeko proiektua. “Etxabarri Ibiña - Luko tartea”, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan burutzeko.

2005eko ekainaren 7ko Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Arabako Bideak SAri bidaltzea "Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea egiteko obrek eragindako Bartzelona-Bizkaia-Valentzia gasbidea aldatzeko proiektua", obren eremuan finantzatu eta gauzatzeko.

Diputatuen Kontseiluak, 2005eko irailaren 23ko 808 Erabakiaren bitartez, behin betiko onartu zuen “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea egiteko proiektua. Etxabarri-Ibiña - Luko tartea”.

Azaroaren 8ko 1009/2005 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Arabako Bideak SAri 5.170.000 euro gordetzea, Vitoria-Gasteiz-Eibar arteko AP-1 autobidearen Arabako zatia eraikitzeko eta ustiatzeko finantza nahikotasuna ziurtatuko duten etorkizuneko kapital gehikuntzak bermatzeko.

Azaroaren 15eko 1044/2005 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Arabako Bideak SAri bidaltzea "Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidearen Etxabarri Dibiñatik Lukorainoko zatia egiteko obrek eragindako Barcina-Itsaso 400 kV-eko linea aldatzeko proiektua", obren eremuan finantzatu eta gauzatzeko.

374 zenbakiko Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen Arabako Bideak SAri bidaltzeko “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidearen Etxabarritik Lukorainoko tartea egiteko obrek eragindako telefono lineak aldatzeko proiektua”, obren eremuan finantzatu eta gauzatzeko.

610 zenbakiko Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen Arabako Bideak SAri bidaltzeko “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidearen Etxabarritik Lukorainoko tartea egiteko proiektuak Etxabarrin aurreikusten duen ordainlekua argindarrez hornitzeko instalazio eta egokitze proiektua”, obren eremuan finantzatu eta gauzatzeko.

611 zenbakiko Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen Arabako Bideak SAri bidaltzeko “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidearen Etxabarritik Lukorainoko tartea egiteko proiektuak Etxabarrin aurreikusten duen lotunea argiztatzeko hiru aginte zentroak argindarrez hornitzeko instalazio eta egokitze proiektua”, obren eremuan finantzatu eta gauzatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 2006ko uztailaren 4ko 586. Erabakiaren bidez, erabaki zen Arabako Bideak SAri bidaltzea “Vitoria-Gasteiz-Eibar artean AP-1 autobidean eragina izango duen Bartzelona-Bilbo gasbidea aldatzeko proiektua. “Etxabarri Ibiña - Luko tartea”, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan burutzeko.

Otsailaren 8ko 65/2007 Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen “Lukoko tunelaren hegoaldeko ahoan energia elektrikoa hornitzeko instalazioa egiteko proiektua” bidaltzeko, obren eremuan finantzatu eta gauzatzeko.

Otsailaren 8ko 64/2007 Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen Arabako Bideak SAri bidaltzeko “Lukoko tunelaren iparraldeko ahoan energia elektrikoa hornitzeko instalazioa egiteko proiektua”, obren eremuan finantzatu eta gauzatzeko.

Apirilaren 17ko 296/2007 Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen “Lukoko ordainlekuari eta Lukoko lotuneko argiztapeneko agente zentroi energia elektrikoa hornitzeko instalazioa egiteko proiektua” bidaltzeko, obren eremuan finantzatu eta gauzatzeko.

Uztailaren 16ko 564/2007 Foru Aginduaren bidez, Herri Lan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen “Lukoko tunelean energia elektrikoa hornitzeko azpiegitura berriaren baldintza tekniko eta ekonomikoei buruzko azterlana” onesteko eta Arabako Bideak SAri bidaltzeko, obren eremuan finantzatu eta gauzatzeko.

Abenduaren 28ko 1181/2007 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Arabako Bideak SAren sozietate kapitalaren 5.170.000 euroko gehikuntzan parte hartzea.

Apirilaren 22ko 229/2008 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen abenduaren 18ko 22/2007 Foru Arauak baimendutako Arabako Bideak SA foru sozietate publikoaren zorpetzea finkatzea (12.000.000 euro) onestea.

Apirilaren 22ko 230/2008 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen aldatzea Arabako Bideak SAK eta Arabako Foru Aldundiak hitzartutako akordioa, AP-1 Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidearen Arabako zatia egin, kontserbatu, mantendu, ustiatu eta finantzatzeari buruzkoa.

Maiatzaren 16ko 293/2009 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak onetsi zuen Bidegi SAK eta Bidelan SAK duten AP-1 Eibar-Vitoria-Gasteiz autobidearen operazio eta ustiapen kontratuari atxikitzea Arabako Bideak SA, Arabako zatira hedatzeko.

2009ko maiatzaren 19an, Diputatuen Kontseiluak zerga premiazko araugintzako dekretu bat egitea erabaki zuen, 3 zenbakikoa. Horren bitartez, indargabeturik geratu zen Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 22ko 44/2004 Foru Dekretua, Vitoria-Gasteiz-Eibar AP-1 autobidearen Arabako zatia erabiltzeagatik ordaindu beharreko bidesariaren zenbatekoa finkatu zuena.

Maiatzaren 19ko 292/2009 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak Arabako Bideak SAri eskatu zion dirulaguntza programa bat gara zezala, AP-1 autobidearen Arabako zatia erabiltzeagatik ordaindu beharreko bidesaria ordaintzen laguntzeko Arabako Lurralde Historikoko biztanleei.

Ekainaren 16ko 388/2009 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen sozietatearen kapital gehikuntzan parte hartzea. Horretarako, ehuna euroko balio izendatua zuten 4.000 akzio harpidetu zituen; guztira, 400.000 euro.

Ekainaren 23ko 407/2009 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen sozietatearen kapital gehikuntzan parte hartzea. Horretarako, ehuna euroko balio izendatua zuten 16.820 akzio harpidetu zituen; guztira, 1.682.000 euro.

Apirilaren 27ko 368/2010 Foru Aginduaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Gaztedi errugbi taldearekin lankidetzan aritzea eta hitzarmen horretarako ekarpen gisa 24.000 euro ematea.

Uztailaren 20ko 473/2010 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen 290.785 euroko funtsak ordaintzea Arabako Bideak SAr, 2009ko uztailetik 2010eko ekainera bitarteko interesak ordaintzeko, AP-1a finantzatzeko Vital Kutxarekin sinatutako mendeko maileguagatik.

Abenduaren 30eko 939/2010 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen egun horretan bertan sozietateko Akziodunen Batzar Nagusiak onetsitako kapital gehikuntzan parte hartzea. Horretarako, ehuna euroko balio izendatua zuten 4.000 akzio harpidetu ziren; guztira, 400.000 euro. 2010eko abenduaren 31n ez zen kapital gehikuntza horretarako inolako ordainketarik egin.

Abuztuaren 2ko 434/2011 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen 2.523.352 euroko funtsak ordaintzea Arabako Bideak SAr, AP-1 autobidea finantzatzeko kreditu kontratuari zegokion zatikako zor zerbitzuaren urteko estaldura ratioa betetzeko.

Ekainaren 28ko 362/2011 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen 576.648 euroko funtsak ordaintzea Arabako Bideak SAr, 2010eko uztailetik 2011ko ekainera bitarteko interesak ordaintzeko, Caja Vital Kutxarekin sinatutako mendeko maileguagatik, eta 311.658 euro, AP-1 autobidea finantzatzeko Banco Guipuzcoanorekin sinatutako mendeko maileguagatik zegozkion interesak ordaintzeko.

Ekainaren 26ko 360/2012 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak 3.416.437 euroko ekarpen bat onetsi zuen Arabako Bideak SArn alde; zenbateko horretatik, 737.581 euro Caja Vital Kutxarekin eta Banco Guipuzcoanorekin sinatutako mendeko maileguen interesetatik eratorritako galerak konpentsatzeko Arabako Foru Aldundiak Arabako Bideak SArrekin finantza karga bermatzeko hartutako konpromisoari dagozkio eta 2012an ordaindu beharrekoak dira, eta 2.678.856 euro 2011ko ekitaldiko galerak konpentsatzeko bazkideek egindako ekarpenak dira.

Otsailaren 5eko 65/2013 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak 3.245.615 euroko ekarpen bat onetsi zuen Arabako Bideak SArn alde, 2012ko ekitaldiko galerak konpentsatzeko bazkideek egindako ekarpen moduan.

Urtarrilaren 28ko 31/2014 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak 2.844.145,96 euroko ekarpen bat onetsi zuen Arabako Bideak SArn alde, 2013ko ekitaldiko galerak konpentsatzeko bazkideek egindako ekarpen moduan.

Urtarrilaren 27ko 35/2015 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak 2.862.924,97 euroko ekarpen bat onetsi zuen Arabako Bideak SArn alde, Banku Sindikatuarekin sinatutako tarteen arabarako kreditu kontratuan jasotako betebeharrak betetzeko bazkideek egindako ekarpen moduan.

Urriaren 23ko 181/2015 Foru Aginduen bidez, 75.000 euroko ekarpen bat onetsi zen Arabako Bideak SArn alde, AP-1 autobidean gaiza biltegitatzeko silo bat eraikitzeko.

Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 24ko 29/2016 Erabakiaren bidez, akziodun bakarrak onetsi zuen 2.500.000 euroko ekarpena egitea, bazkideen ekarpen gisa, sozietateak Banku Sindikatuarekin zituen finantza betebeharrak betetzeko.

2016ko martxoaren 22an, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak jaulkitako 8/2016 kreditu gaitzearen espedientearen bidez, erabaki zen 275.000 euroko kreditua gaitzea sozietatearen alde, Arabako Lurralde Historikoaren 2016ko ekitaldirako aurrekontuen barruan

Foru Gobernu Kontseiluak (lehenago, Diputatuen Kontseiluak) erabaki zuen sozietateko Akziodunen Batzar Nagusiak 2017ko uztailaren 11n erabakitako kapital gehikuntzan parte hartzea. Horretarako, ehuna euroko balio izendatua zuten 68.000 akzio harpidetu zituen; guztira, 6.800.000 euro. 2017ko

apirilaren 6an, 4.800.000 euroko aurrerakina ordaindu zen, eta 2017ko uztailaren 28an gainerako 2.000.000 euroak.

Azaroaren 19ko 634/2018 Erabakiaren bidez, Foru Gobernu Kontseiluak erabaki zuen sozietatearen kapital gehikuntzan parte hartzea. Horretarako, ehuna euroko balio izendatua zuten 20.000 akzio harpidetu ziren; guztira, 2.000.000 euro, 2018ko abenduaren 5ean ordainduak.

2019ko urtarrilaren 8ko 3/2019 Erabakiaren bidez, Foru Gobernu Kontseiluak Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko aurrekontuaren kredituak eta horien zenbatekoa onetsi zituen, bai eta zegozkien konpromiso kredituak ere. Aurrekontu horren barruan jaso zen “Arabako Bideak Arabat kapital gehikuntza” izeneko partida, 1.500.000 euroz hornitua. Sozietatearen akziodun bakarrak ehuna euroko balio izendatua zuten 15.000 akzio harpidetu zituen, eta 2019ko azaroaren 29an ordaindu ziren.

Arabako Lurralde Historikoko 2020. urterako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauak onetsi zuen sozietatearen kapitalari 1.500.000 euro gehitzea.

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 16ko 293/2009 Erabakiaren bidez onetsitako atxikitze kontratuaren indarraldia 2018ko ekainaren 5ean amaitu zen, 5 hilabeteko luzapenarekin. 2018ko irailaren 26an, sozietateko administrazio kontseiluak erabaki zuen AP-1 Araba SAr adjudikatzea Vitoria-Gasteiz-Eibar AP-1 autobidea egin, kontserbatu eta mantentzeko kontratua. Kontratu berriak 8 urteko ustiapen aldi bat jasotzen zuen, kontratua formalizatzen zen unetik aurrera. 24.198.000 milioi euroko prezio finkoa ezarri zen aldi osorako.

Arabako Lurralde Historikoaren 2021. urterako aurrekontua gauzatzeari buruzko urtarrilaren 26ko 1/2021 Foru Arauak baimena eman zion Arabati 5.000.000 euroko zorpetze eragiketak hitzartzeko eta Arabako Foru Aldundiari eragiketa horiek bermatzeko.

Arabako Lurralde Historikoko 2022. urterako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 21eko 33/2021 Foru Arauak onetsi zuen sozietatearen kapitalari 756.906 euro gehitzea.

Arabako Lurralde Historikoko 2023. urterako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauak onetsi zuen sozietatearen kapitalari 750.000 euro gehitzea.

Arabako Lurralde Historikoko 2025. urterako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 17ko 18/2024 Foru Arauak onetsi zuen sozietatearen kapitalari 759.400 euro gehitzea.

Arabako Lurralde Historikoko 2026. urterako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 29ko 20/2025 Foru Arauak onetsi zuen sozietatearen kapitalari 759.400 euro gehitzea.

(19) Bestelako informazioa

Ikuskaritzako ordainsariak-

Sozietatearen auditoreak 2025ko ekitaldirako emandako urteko kontuen auditoretza zerbitzuei dagozkien ordainsariak 10.700 eurokoak izan dira (10.700 euro 2024an), eta auditoreak ez du kopuru gehigarririk jaso beste kontzeptu batzuegatik.

Bestalde, honako hauek dira auditoretza enpresaren sare bereko beste sozietate batzuek 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n amaitu ziren ekitaldietan emandako zerbitzuei dagozkien ordainsariak:

	Euros	
	2025	2024
Por servicios fiscales	5.364	5.220
Por otros servicios	2.931	2.933
	<u>8.295</u>	<u>8.153</u>

Plantilla-

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n amaitu diren ekitaldietako batez besteko plantilla, kategorien arabera banatuta, hau da:

Categoría	Nº de empleados	
	2025	2024
Dirección	1	1
Técnicos	2	2
Administrativos	3	3
	6	6

Horrez gain, 3/2007 Lege Organikoak ezarritakoa betez, 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n amaitu ziren ekitaldietako sozietateko langileen eta administratzaileen sexuaren arabeko banaketa, kategorien arabera banatuta:

Categoría	31 de diciembre de 2025			31 de diciembre de 2024		
	Nº de personas			Nº de personas		
	Nº Hombres	Nº Mujeres	Total	Nº Hombres	Nº Mujeres	Total
Administradores	3	2	5	2	3	5
Dirección	1	-	1	1	-	1
Técnicos	1	1	2	1	1	2
Administrativos	-	3	3	-	2	2
	5	6	11	4	6	10

2025ko eta 2024ko ekitaldietan ez da izan % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen langilerik.

Honako informazio hau jaso da, 51/2013 Foru Dekretua betetzeko:

AFAko langileen eta ekarpenen datuak	2025	2024
Langileen kostua:		
Langile gastuak	463.574	449.251
Plantilla	5,6	5,9
AFaren ekarpenak:		
Kapitaleko dirulaguntzak	-	-
Ustiapenerako dirulaguntzak	-	-
Galerak konpentsatzeko ekarpenak	-	-
Kapital gehikuntzak	759.400	759.400

(20) Konpromisoak eta kontingentziak

Hitzartutako abalak eta bermeak

2025eko abenduaren 31n, sozietateak finantza entitateetatik jasotako 1.223.334 euroko abalak zituen, indarrean zeuden kontratuen berme gisa (1.223.334 mila euro 2024ko abenduaren 31n).

Sozietatearen administrazio organoak ez du espero aipatutako bermeetatik eratorritako pasiboak, emaitzen kontuan eragin nabarmena izango dutenak, izaterik.

Kontingentziak

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n, sozietateak ez du negozioaren ohiko funtzionamenduan sortutako auzien ondoriozko pasibo kontingente esanguratsurik.

(21) Ingurumenari buruzko informazioa

Ingurumen jardueratzat hartzen da helburu nagusitzat ingurumen inpaktua minimizatzea eta ingurumena babestea eta hobetzea duen eragiketa oro. 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldien itxieran ez zegoen ingurumena babesteko eta hobetzeko aktiborik, eta ez da ingurumen izaerako gasturik egin.

Sozietatearen administratzaileen iritzian, ez dago ingurumena babestu eta hobetzearekin loturiko kontingentzia esanguratsurik, eta ez da beharrezkoa kontzeptu horiei buruzko zuzkidurarik erregistratzea, 2025eko eta 2024ko abenduaren 31n amaitu ziren urteko ekitaldietarako.

2025eko eta 2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan ez da ingurumenari lotutako dirulaguntzarik eta sarrerarik eskuratu.

2025ko eta 2024ko ekitaldietan, sozietateak ez du berotegi efektuko gasak isurtzeko eskubiderik izan.

(22) Itxi osteko gertakariak

Ez da gertaera aipagarriarik izan ekitaldiaren itxiera dataren eta urteko kontuak formulatu ziren dataren artean.

ARABAKO BIDEAK SA (kide bakarreko sozietatea)

2025KO EKITALDIKO KUDEAKETARI BURUZKO TXOSTENA

2025eko EKITALDIKO KUDEAKETA TXOSTENA

Sarrera

Arabako Bideak SA (hemendik aurrera, sozietatea) sozietatearen xede nagusia da Vitoria-Gasteiz-Eibar AP-1 autobidea eraiki, kontserbatu, mantendu eta ustiatzea, bere kabuz edo hirugarren pertsonen bitartez, Arabako Lurralde Historikoa zeharkatzen duen zatian. Sozietatearen helburu soziala izango da, halaber, Arabako Foru Aldundiak agintzen dizkion beste autobide, edukiera handiko bide eta gainerako bide azpiegitura batzuk proiektatzea, eraikitzea, kontserbatzea, finantzatzea eta ustiatzea, bai eta haiekin zerikusia duten instalazioak eta zerbitzuak ere, eta, hala badagokio, baita tarte berriak, hobekuntzak, handitzeak eta luzapenak ere.

Sozietateak Espainiako lurraldean dihardu.

Negozioen bilakaera eta sozietatearen egoera


2025an, ibilgailuen eguneko batez besteko intentsitatea (EBBI) eguneko 17.950 ibilgailu izan da Luko-Muga zatian, eta 11.424 ibilgailu Etxabarri Dibiña-Luko zatian. Horrek esan nahi du % 2,76ko eta % 3,30ko igoera izango dela, hurrenez hurren, tarte bakoitzean, 2024ko ekitaldiarekin alderatuta.

Urteko EBBI 2024an eta 2025an:

IMD 2025		Ligeros	Pesados I	Pesados II	Total	inc.	Total 2024
Luko-Muga		15.110	639	2.200	17.950	2,76%	17.467
Etxabarri-Lu		9.406	388	1.630	11.424	3,30%	11.059

Hileko EBBI 2025an:

	LUKO - MUGA 2025					ETXABARRI - LUKO 2025				
	Ligeros	Pesados I	Pesados II	Total	%inc24	Ligeros	Pesados I	Pesados II	Total	%inc24
ene	12.152	572	2.050	14.774	4,1%	6.862	326	1.489	8.677	4,3%
feb	11.692	646	2.382	14.720	4,6%	6.352	368	1.712	8.432	4,8%
mar	11.606	649	2.302	14.557	-1,7%	6.439	378	1.687	8.504	-4,2%
abr	14.146	648	2.125	16.919	8,4%	8.807	404	1.579	10.790	13,1%
may	13.577	683	2.237	16.497	3,3%	7.913	420	1.645	9.978	3,9%
jun	14.225	681	2.291	17.197	6,9%	8.414	414	1.687	10.515	8,9%
jul	21.008	703	2.311	24.022	3,4%	14.565	420	1.688	16.673	2,9%
ago	27.370	477	1.549	29.396	1,4%	21.129	318	1.219	22.666	0,9%
sep	14.752	695	2.394	17.841	0,4%	8.878	426	1.783	11.087	2,3%
oct	13.745	711	2.465	16.921	1,6%	7.887	433	1.824	10.144	3,2%
nov	12.590	640	2.374	15.604	-0,6%	6.941	388	1.773	9.102	-0,1%
dic	13.977	566	1.955	16.498	2,2%	8.245	357	1.491	10.093	2,5%



Urteko dirubilketa 2025an:

2025eko ekitaldiko bilketa garbia 14.012.666 eurokoa izan zen (16.955.326 €, BEZa barne), hau da, % 8,53ko igoera, 2024an erregistratutako 12.911.086 euroekin alderatuta. Hazkunde hori, batez ere, trafiko bolumena handitzearen eta autobideko tarifak % 5 eguneratzearen ondorio da.


Hurrengo taulan 2025eko abenduaren 31ko gaueko hamabiak bitartean izandako hileko dirubilketak jaso dira.

	Crédito	%	Metálico	%	Ligeros	%	Pesados I	%	Pesados II	%	Total
ene	1.101.006 €	94%	72.487 €	6%	808.465 €	69%	65.267 €	6%	299.761 €	26%	1.173.492 €
feb	1.026.890 €	96%	47.150 €	4%	693.956 €	65%	66.830 €	6%	313.253 €	29%	1.074.039 €
mar	1.127.734 €	96%	51.480 €	4%	767.217 €	65%	74.634 €	6%	337.363 €	29%	1.179.214 €
abr	1.244.368 €	94%	75.135 €	6%	942.454 €	71%	73.788 €	6%	303.262 €	23%	1.319.504 €
may	1.254.632 €	95%	66.592 €	5%	912.720 €	69%	80.012 €	6%	328.492 €	25%	1.321.224 €
jun	1.260.925 €	95%	72.360 €	5%	930.181 €	70%	76.888 €	6%	326.216 €	24%	1.333.285 €
jul	1.770.111 €	91%	169.182 €	9%	1.519.413 €	78%	81.790 €	4%	338.090 €	17%	1.939.293 €
ago	2.114.924 €	90%	224.866 €	10%	2.048.839 €	88%	57.593 €	2%	233.358 €	10%	2.339.790 €
sep	1.315.514 €	95%	74.092 €	5%	968.800 €	70%	79.146 €	6%	341.659 €	25%	1.389.606 €
oct	1.302.788 €	95%	61.738 €	5%	918.458 €	67%	83.180 €	6%	362.888 €	27%	1.364.526 €
nov	1.164.924 €	96%	50.116 €	4%	802.168 €	66%	72.636 €	6%	340.235 €	28%	1.215.039 €
dic	1.232.486 €	94%	73.827 €	6%	947.973 €	73%	67.076 €	5%	291.264 €	22%	1.306.313 €
	15.916.301 €		1.039.025 €		12.260.645 €		878.839 €		3.815.841 €		16.955.326 €

* Los importes incluyen el IVA

Importe neto sin IVA: 14.012.666 €

Importe neto 2024: 12.911.086 €
var.: 8,53%



Salmenten zifraren galera-irabazien zenbatekoa (14.149.798) eta bidesari sistemaren bilketaren zenbatekoa (14.012.666) ez datoz bat, ezin baita eskudirutan bildutakoa egunka (00:00etatik 00:00etara) zenbatu; bidesarian zakuak biltzen diren unearen arabera zenbatu behar dira. Beraz, beti dago aldea kontabilitateko salmenten zifraren eta bidesariaren bilketaren artean. Ekitaldia itxi ondoren, eskudiruaren jarraipena egiten da, kontuko zenbatekoak bidesari sistemakoarekin bat datozela egiaztatzeko.

Negozioek 2026ean ustez izango duten bilakaera

2026eko ekitaldirako diru sarrera garbiak % 7,80 handitzea aurreikusten da. 2026erako aurreikusitako bilketa, guztira, 15.347.178 € da, BEZik gabe (16.205.475 €, BEZa barne).

Gainera, AP-68 autobidearen kobrantza sistema kudeatzea aurreikusten da, egungo emakida 2026ko azaroan amaitu ondoren. Kudeaketa eta ustiapen ereduaren alderdiak zehaztea falta da.

Arrisku eta ziurgabetasunen balorazioa

Sozietateak merkatuan jarduteagatik jasan behar dituen kreditu arriskuari, interes tasaren arriskuari, likidezia arriskuari eta eskudiru fluxuen arriskuari dagokienez, uste dugu ez direla sektoreko gainerako enpresenak bezalakoak eta ez direla arrisku handiegiak, enpresaren etorkizuneko bideragarritasuna kolokan jar dezaketen horietakoak.

Beste kontu batzuk

Ekitaldian ez da ikerketa eta garapen arloko jarduketarik egin sozietatearen jardueraren ondorioz.

Sozietateak gaur egun ez dauka partaidetza propiorik autozorroan, eta ez da horrelako eragiketarik egin 2025ko ekitaldian.

Itxieraz geroko gertaerak

Ez da izan itxieraz geroko gertaera aipagarririk.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea 35,05 egunekoa da. Sozietatea barne neurriak garatzen ari da hura murrizteko.

URTEKO KONTUEN ETA KUDEAKETA TXOSTENAREN AURKEZPENA

Indarrean dagoen merkataritza araudia betez, **ARABAKO BIDEAK-VÍAS DE ALAVA SA**ko administratzaileek 2025eko abenduaren 31n amaitu zen urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta kudeaketa txostena egin dituzte, zeinak erantsitako 1etik 49ra eta 1etik 4ra bitarteko orriek osatzen baitituzte, hurrenez hurren.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 27a

Administratzaileak

Jon Nogales Prieto
Lehendakaria

M^a Ángeles Gutiérrez Ondarza
Bokala

Koldo Ruilopez González
Bokala

Iñaki Arrizabalaga Ormaechea jn.
Bokala

Itziar Gonzalo de Zuazo
Idazkaria